



bizipozez bizi!

Altsasuko feriek Nafarroa Oinezen lekukoa hartuko dute asteburuan /13





Milakolore elkarteko kideak eta Dantzarima dantza konpainiako kideak biharko ikuskizuna prestatzen. Behean, erdian, Virginia Ruiz de Eguino elkartearen presidentea.

Erkuden Ruiz Barroso LAKUNTZA

"Milakolore poza da". Virginia Ruiz de Eguino Milakolore elkarteko presidentea da. Elkarte 2009. urtean sortu zuten Sakanan behar bereziak zituzten pertsonak "elkartzeko". Gaur egun, elkarte baina lagun talde bat da Milakolore, lagun kuadrilla bat. Bihar haien eguna ospatuko dute Lakuntzan herriko "hainbat pertsonarekin" batera antolatu duten Milakolore festan: "opari bat izan da guretako". Behar bereziak dituzten pertsonekin batera "ongi pasatzeko eta disfrutatzeko" eguna izanen dela aurreratu du Ruiz de Eguinok. Gainera, egunean zehar biltzen duten diruarekin egokitutako ibilgailu baten finantzaketa egingen du elkarteak.

Behar bereziak dituzten pertsonendako Sakanan gauza guzti zeudela konturatu zen guraso talde bat. "Gehien bat aisialdian ez zegoen ezer. Beste arlo guztiak oso ongi zeuden: osasuna, hezkuntza eta abar". Baina behar bereziak zituzten seme-alabendako aisialdirako tarterik ez zutela konturatu ziren. Hortaz, elkartzea eta elkarrekin ateratzen hastea erabaki zuten.

Bizitzak mila kolore dituelako

Milakolore eguna ospatuko dute bihar Lakuntzan. Bi dira helburu nagusiak: behar bereziak dituzten pertsonak gizarteratzea eta integrazioa bultzatzea, eta Milakolore elkartearendako dirua biltzea. Egun osoko egitaraua prestatu dute

Sakanako Mankomunitatearen laguntza izan zuten elkarte sortzeko.

Hasieran Sakanako ezgaituen elkarte izena jarri zioten, "izen oso negatiboa zen", izan ere, elkarteko kideak "desberdinak" zirela aditzera ematen zuen. "Milakolore, aldiz, oso polita da eta oso ongi adierazten du garena. Desberdintasunean berdinak garena". "Poza" ematen duela dio Ruiz de Eguinok: "nire alaba lagunekin dagoenean pozik dago, eta hori ikustean nik poza sentitzen dut".

Elkartearen helburu nagusia "gure seme-alabak elkartzea da". Ruiz de Eguinok azaldu duenez, "iristen da momentu bat gure seme-alabak beti gurekin egon behar direla, eta gurekin asperetzen dira. Gazteek egiten dutena egin nahi dute". Egoera horri irtenbidea emateko sortu zen elkarte.

Lagunak

Hasiera gogorra izan zela dio Ruiz de Eguinok, baina "Sakanan pertsona on asko" dagoela gaineratu du: "eskatzeko esan zi-

daten, ahal nuena egiteko, eta erantzuna izan nuen". Hortaz, Sakanako udaletxeetan eta Mankomunitatean laguntza handia izan dute. "Gure seme-alabak ezagutu dituztenean gauza asko bideratu dituzte". Atzera begiratzen dutenean eta elkartearen lortu duten guztia ikusten dutenean "urrats handiak" eman dituztela sentitzen dute.

Elkarte bere alabarengatik bultzatu zuela esan du, baina behin "bere lagunak" ezagutu zituenean guztiengatik egiten duela dio. "Alaba pozik dago,

eta nire alabak bezalako garrantzia dute bere lagunak".

Prozesua "zaila" izan dela aitortu du Ruiz de Eguinok. "Lehenengo ama bezala onartu behar duzu zure alabak behar bereziak dituela. Barruko prozesu bat da. Eta gero kanporatu behar duzu hori". Gauza onak ere badituela esan du Milakolore elkarteko presidentek. "Behin kanporatzen duzuenean eta beste batzuk ikusten dutenean oso ongi eta gustura daudela, animatzen dira ere".

Gainera, Ruiz de Eguinok esan duenez, behar bereziak dituzten pertsonak gizarteratze prozesuan urrats oso garrantzitsua izan da pertsonaia ospetsuek haien seme-alabek behar bereziak dituztela plazaratzea: "Campeones filma ikusi nuen, eta pentsatu nuen oso polita zela horrelako pelikula bat egotea. Gainera, Aberasturi kazetariak bezala beste hainbat pertsonaia ospetsuk haien seme-alabei buruz hitz egiten dute".

Elkartearen xedea gazteak "elkarrekin egoteko eta ateratzeko" biltzea da. "Edozer gauza egitea gustatzen zaie". Hortaz, igerilekura joaten dira, mendi-



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com



Etxe pasiboetarako egokia
5 9000

Isolamendu nukleo indartsua



Beirak lehorrean jarrita



Aparteko azala koloreztatua

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

ra, dantza egiten dute, musiko-terapiara joaten dira, psiko-terapiara, zaldian ibiltzera joaten dira eta abar. Urtean zehar hainbat irteera egiten dituzte eta asteburu pasa Goldatz herrira joaten dira.

"Garrantzitsuena elkarrekin egotea da. Lagunekin kalera ateratzea. Batzuetan ez dute ezer egin behar, besterik gabe kalera ateratzea. Guztiok bezala lagunekin ateratzen zarela eta kaleko eserleku batean esertzen zarela arratsalde pasa. Haiek ere". Hortaz, lagunak dira, kuadrilla bat. "Behar bereziak dituzten gazteak eta pertsonak kalean eta aisialdian ikustea oso pausu handia da".

Elkarteko kideak ere Sakana-ko festetara joaten dira. "Inauterietan ateratzen gara, herrietako festetara joaten gara... Askok gustatzen zaie". Elkarteko kideak "harrera ona" izaten dute herrietan. "Jendea oso jatorra da, oso gustura egoten da haiekin". 2016ko Altsasuko Alde Zaharretako festetan herriko gaztetxeak Milakolore elkartearen omendu zuten.

Boluntarioak

Elkartea gurasoek sortu dute eta haien inplikazioa "osoa" da. "Elkartea guk osatzen dugu, gurasoek, ez dugu kontratuko pertsonarik". Amaia Urriza da Milakolore elkartearen koordinatzailea. Hortaz, elkartearen zutabe nagusietako bat boluntarioak dira. Une honetan hogeitau boluntario daude, eta gehiago behar dira. "Boluntarioena gauza zailetakoa izan ohi da. Oso boluntario onak izan ditugu, ditugu eta izanen ditugu. Baina gehiago behar ditugu". Izan ere, elkarteak kideek aisia ezagutzen dutenean "gehiago" nahi dute. Boluntarioak elkarteak antolatzen dituen ekimenetara joaten dira eta gazteekin egoten dira.

"Batzuetan jendeak beldurra dio beraiekin egotera eta beraiekin aisia egitera, baina behin haiekin egoten zarenean pentsaera aldatzen zaizu". Etorkezunerako futbol partiduak antolatu ditzaketela aurreratu du.

Zortzi pertsona hasi ziren elkartean, eta, gaur egun, hogeitau pertsona daude. Gainera, adin ezberdinetako jendea dago. "Gazteenak 10 urte ditu eta helduenak 58 urte". Adin tartea handia denez, "elkarbizitza" arazotxoak egoten direla aitortu du Ruiz de

Eguinok, "baina guk ere izaten ditugu". Behar bereziak ere mota guztietakoak dira: down sindromea duten pertsonak daude, baita garapenean nahasmena dutenak ere, besteak beste. Hala ere, haien artean sortzen den harremana ikusi behar dela dio Ruiz de Eguinok: "kontaketa badizute sinestezina da. Nola besarkatzen diren, begiradak, irribarreak..."

Milakolore eguna

Bihar, urriaren 27an, larunbata Milakolore elkartearen kideekin egoteko aukera izanen da. Eguna osoko egitaraua prestatu dute gustu guztietarako eta adin guztietarako pentsatuak. Behar bereziak dituzten pertsonetarako bideratuak daude, baina edozeinek parte har dezake, hori baita egunaren helburuetako bat: behar bereziak dituzten pertsonak gizarteratzea eta integrazioa bultzatzea. "Gure seme-alabekin egoteko, ongi pasatzeko eta dantzatzeko egun bat izanen da. Haiekin unetxo bat nahikoa da konturatzeko nola-koak diren. Oso gutxi eskatzen dute, eta asko ematen dute".

Lakuntzan ospatuko dute Milakolore eguna, plazan, eta eguraldi txarraren aurreikuspena dagoenez, karpa bat berogailuarekin jarriko dutela esan dute. "Milakolore eguna opari bat izan da guretzat. Opari handiena izan dela esanen nuke". Lakuntzako hainbat pertsoneri esker antolatu dute festa. Lakuntzako udalak Mochila 21 musika taldea kontratatu zuten, baina ez zuten kontzertua bakarrik egin nahi: "behar bereziak zituzten pertsonen aldeko eguna izatea pentsatu zuten".

Hiru hilabetetan lan asko egin dutela azaldu du Ruiz de Eguinok: "pertsona oso onak izan ditugu bidean. Lakuntzako alkatea, baina ez alkate bezala, Patxi bezala; Aitor, Martin, Ricardo, Fernando, Garin... eta beste hainbat gure ondoan egon dira festa prestatzen. Ondoan ez; gure aurretik joan dira". Sentsibiltate handia erakutsi dutela goraiatu du Ruiz de Eguinok.

Integrazioa bultzatu ez ezik, Milakolore egunarekin dirua biltzeko aukera izanen dute ere. "Urtea pasatzeko dirua dugu, baina besterik ez". Hortaz, egunean lortzen duten diruarekin egokitutako ibilgailua finantzatzeko erabiliko dute. "Ibilgailua izatea oso garrantzitsua da.



**RUIZ DE EGUINO:
"MILAKOLORE EGUNA
OPARI HANDI BAT
IZAN DA GURETAKO,
HANDIENA"**

**KOLABORATZEKO
HAINBAT MODU
IZANEN DIRA
MILAKOLORE
EGUNEAN**

Boluntarioek lekuetara joateko arazoak izan ohi dituzte, eta honek asko lagunduko digu". Bederatzi pertsonetarako ibilgailu bat da, gurgildun aukira egokituta dagoena.

"Mila sari baino gehiagoko tonbola bat dugu. 3.500 boleto ditugu, beraz, oparia lortzea oso erraza da". Txosna egonen da ere plazan. Goizean tailerrak, puzgarriak, zaldian ibilbideak eta beste hainbat ekimen egonen dira, eta haietan parte hartzeko eskumuturrekoak erosi behar dira, 3 euroko prezioa dutenak. Kolaboratzeko beste modu bat egunerako egin dituzten koloretako zapiak erostea da.

Bazkari herrikoia izanen da ere, eta, arratsaldean dantza eta musika izanen da. Mochila 21 taldearen kontzertua izanen da, baina aurretik Milakoloreko kideek eta Dantzarima dantza konpainiako dantzariak dantza egiten dute. Batukada ere izanen da. Ondoren, Zesura rap taldearen kontzertua izanen da, Mochila 21 aurretik. Ondoren, Beietz! arbizuarren eta La Banda del Jefe Bigun talde altsasuarraren kontzertuak izanen dira.

Milakolore egunaren egitaraua

Egunean zehar

- Tonbola.
- Zaldiekin ibilaldiak.
- Puzgarriak.

12:30

- **Tailerrak** Helena Santano, Gure Sustriak baserri eskola, aurpegi margotzea, henna, Anfas, Tasubinsa eta abar.

14:30

- Herri Bazkaria.

16:00

- Dantza eta batukada. Irantzu eta Carlos.

Kontzertuak

- **19:00** Zesura rap
- **20:00** Mochila 21
- **21:00** Beietz!
- **21:30** Zezensuzkoa.
- **22:00** La banda del jefe Bigun.



ASTEKOA

XABIER REPARAZ EXTRAMIANA

Askatasun ametsa

Bazen herri bat, askatasunean inongo lur eta legeri atxiki gabe bere bidea jarraitzen zuena. Mendeetako bidaiak munduan zehar sakabanatu zituen, agintarien lege zurrunetatik ihesi, mugak zeharkatu eta bere lege propioa gorde zuena. Aske sentitzeko premia zuen herri hark, beharrak bultzatua, besteen jabegoa bere egin zuen sarri herriz herriko ibilbidean. Lege zurrunen menpekoek, haien askatasuna ezin eramanik, haien aurkako mamuak altxatu zituzten edonon. Lapur eta gaizkile izendatu zituzten urte luzez, haien gaineko irudi ankerra eraiki zuten belaunaldien kontzientzietan. Larrua ilun, janzkera xeble, gurdien gurgilaren biran mesfidantza nagusitu zen.

Ordena publikoaren etsai bihurturik, eliza eta ogasun agenteen atzaparretatik ihes egiten zuen herri hark. Haiekin bukatzeko saiakerak egin baziren ere, haien arteko azkarrenek ihes egiten zieten behatz artetik. Adimena landu beharra izan zuten bizirik irauteko. Lekuan lekuko teilagin, artile moztaile edo kinkailero bihurtu ziren legearen inperiotik ihesi. Besteak

ASKE SENTITZEKO PREMIA ZUEN HERRI HARK, BEHARRAK BULTZATUA

dibertitzeko, dantzan, zirkuan eta kantuan aditu bilakatu ziren.

Gaur egunera iritsi da herri hura nolabait. Arauen, legeen eta ordenaren erreinuan, estatuak etxebizitza finkoz ordezkatu dizkie gurdiak.

Lanbide berriak ekarri

zizkien industriak, birziklatzen aditu bihurtu ditu. Diru laguntzaz erosten saiatu da askatasun amets hura ongizate estatua. Kartzelak izan dituzte bigarren etxe sarri, drogen itzal luzeak harrapatuak. Baina oztopo guztien gainetik eta mendeen ondotik, haien nortasunean txertaturik darrai aske izatearen amets hura.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Sakanan tren txikitailerik ez, mobilizatu zaitez!!!

SAKANA TRENAREN ALDE PLATAFORMA

Badirudi aste honetan bertan Manu Aierdi bilduko dela Ábalos ministroarekin, eta aztertuko duten gaietako bat Abiadura Handiko Trenaren (AHT) eraikuntzan Nafarroako Gobernuaren parte-hartzea izanen dela. Dakigunez, AHT horretarako korridore berria proiektatu dute Sakanarako; hala ere, jakin badakigu egungo trena prestaturik dagoela hobekuntzarako: trenbide bikoizketa, hirugarren erraila, Europako estandarretara egokitua, trazadura hobekuntzak, eta beste hainbat.

Korridore berri horrek izugarritzko txikizioa ekarriko luke Sakanarako, 40 kilometrotan suntsiketa eta txikizioa. Nekazaritza eta abeltzaintzarako lur hoberenen hondamena, eta ingurumenarentzat eta basa animalientzat orbain-hesi

ikaragarria: 400 futbol zelairen eremua trintxeraz, murriz, ezpondaz eta zubibidez beteta. Onurarik, berriz, batere ez. Eskualdearen txirotzea eta tren zerbitzuak galtzea, besterik ez.

Izan ere, proiektu hori Madrilen diseinatu dute jende boteretsuek, alegia, bankariek eta Ibex 35ean kotizatzen duten enpresaburuek, eta, halaber, politikari zerbitzariak, proiektua aurrera eramateko ezinbestekoak. Ministerioetako bulegoetan eta enpresarien bilkuretan luxuzko saloietan asmatua, negozioa obra publiko erraldoia egitean datza, handikeriaz, milaka milioi diru publikoa xahutuz. Ez dio axola gizartearen benetako beharrekin zerikusirik ez izateak, azken batean, haien lukroa besterik ez dute bilatzen. Bankariek eta

enpresariak milioikako irabaziak bermaturik dituzte eta politikariak irabazi politikoak, sari-komisioak, ate birakariak eta bestelakoak izanen dituzte. Laburbilduz, ustelkeria eta herritarrei egiten ahal zaien iruzur edo estafarik handiena.

Ekonomia aditu guztiak bat datoz esateko Estatuan garatu den AHT plana porrot ekonomiko eta sozial ikaragarria dela; baita Europako Kontuen Auzitegia ere; hala ere, politikariak eta hainbat enpresatako eragileek hor darraite gezur handia elikatzen (garapen ekonomikoa...).

Horiek horrela, une honetan oso garrantzitsua da sakandarron mobilizazioa. Proiektu suntsitzaile horren ordez, egungo trenaren garapenaren bidez, herritarren beharretara egokitutako tren sozial bat eraikitzeko. Horregatik, animatzen zaitugu Sakana Tren Sozialaren Alde plataformak herrietan abiarazi dituen batzarretan ekitzaile izatera.

OBJEKTIBOTIK

Kalabaza bilduma ederra eguzkitan ontzen

1, 2, 3, 4, 5, eta 6 kalabaza, edo kuia. Bilduma ikasle batena balitz, seinale txarra. Baina baratzeko produktuak dira, udaberri-udako lanaren emaitza. Egosita, erreta eta bestelako modu batean prestatuta goxo-goxo egonen direnak.



guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:
GK, Olatz Aldasoro Martinez de Ilardua
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Kolaboratzaileak:
Eñaut Agirrebengoa Apaolaza
Zuzentzailea:
Felix Alzelai Iriarte

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:
Irene Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:
Maria Saez de Albeniz Bregaña
publizitatea@guaixe.eus
eta Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Euskaraldirako hilabete. Izena emateko hilabete

Altsasuko udaletxe parean igandean, 12:00etatik 15:00etara izena emateko aukera izanen da

ALTSASU

Altsasuko Euskaraldia taldeak ekimenean izena emateko erraztasunak nahi ditu. Bereziki Internetekin moldatzen ez direnei. Etzi ferieko postuen artean, udaletxe parean, mahaia jarriko dute. Handik pasatzen direnak izena ematean ariketa indibidual eta, aldi berean, kolektiboan zein rol izanen duten erabaki beharko dute. **Ahobizi** aukeratzaren duenak euskaraz egingo die ulertzen duten guztiei. Edonon, edonoz eta ulertzen duen edonorekin arituko da euskaraz. Ezagutzen ez dituenekin lehen hitza euskaraz egingo du, eta ulertzen baldin badute, hortik aurrerakoak ere bai. **Belarri-prest** aukeratzaren dutenek, euskaraz dakiten guztiei berarekin euskaraz egiteko gonbidapena egingo die. Euskara ulertzen duela adieraziko die eta berarekin euskaraz hitz egin dezatela eskatu. Berak euskaraz edo erdaraz erantzungo du, baina berari euskaraz egiteko eskatuko du.

Photocall-a izanen da eta lagun taldeak hartan parte hartzera animatu dituzte. Hamaikakoak sortzeko aukera izanen da, Euskaraldiko hizki bana eskutan hartuta.

Errigorako kutxak eskatzeko garaia da

Ohiko tokietan azaroaren 14ra arte. 5 urtetan Erriberako euskalgintzari 800.000 euro eman zaio

SAKANA

Erriberako AEK, Viana, Lodosa eta Tuterako ikastolak eta Sorzzenen D ereduaren aldeko kanpainak jaso dute Errigoraren laguntza. Baina hori egin ahal izateko **#Euskararipuzka** kanpainan eskaera egin behar da. Erriberako 23 ekoizleren produktuak kutxa txurian (produktu bereziak) eta beltzean (klasi-koa) banatu dituzte.

Errigora kutxak eskatzeko epea atzo zabaldu eta azaroaren 14ra arte dago irekita. Sakana-ko ikastoletan, euskaltegian eta hainbat tabernatan eta dendatan egin daiteke eskaera. Kutxen banaketa azaroaren 29aren eta abenduaren 4aren artean egingen da. Orduan pagatu beharko da. Kutxak prestatzeko Ablitasko auzolanean parte hartu nahi dutenek azaroaren 9 eta 10 gorde beharko dute agendan.

Erriberako euskalgintza laguntzeaz aparte, Errigorak balio izan du ere euskal jendartearen elikadura-burujabetzaren ideia zabaltzeko. Izan ere, merkaturatze eta kontsumo-ohituretan eragin nahi du Errigorak eta tokiko produktuen kontsumoa sustatzea. Hori guztia herrigintzatik eta auzolanean egin dute, urteko bi kanpainen bidez.

Euskaldunok behar dugun legearen alde, Iruñera

"Behingoz euskara ofiziala Nafarroa osoan" lelopean Kontseiluak mobilizazioa deitu du Iruñean biharko, 17:00etan. Gaztelu plazatik, Media Lunatik eta Iturrama-Abejeras kaleen bidegurutzetik adarrak atera eta Autobus geltokian elkartuko dira

SAKANA

Euskararen gizarte erakundeek Kontseiluak deitutako manifestazioarekin 80 eragilek bat egin dute. Eta Nafarroako Parlamentuaren aurrean agerraldia egin zuten asteartean. Izan ere, Parlamentuan Euskararen Lege berria egiteko ponentzia lanean ari da. "Abaguneak eskaintzen duen aukera baliatu behar du Nafarroako gizarteak, lege berri bat onduz egiazki eta efektiboki aitortu eta berma daitezkeen euskaldunon hizkuntza-eskubideak, behingoz".

Horregatik, adierazi zuten alderdiei dagokiela "oinarri berri sendoak jartzea, lege berriak erantzun diezaien herritarron beharrei, eta etorkizun hobe bat izan dezagun Nafarroako berezko hizkuntza den euskarak eta euskaldunok, eta eskubide berdintasunean, injustiziak zuzenduz, herritarron ongizatea zainduduz eta gizarte kohesioa erraztuz".

80 eragile horien iritzi "euskaldunok merezi eta behar dugun lege babesaren alde egiteko unea da". "Guztion erantzukizuna da, bakoitzak bere aldetik, norabide berean bultzatzea. Horregatik, bat egin dugu mobilizazioarekin. Euskaldunontzat ona izango den Legea egiteko aukera hau bultzatuko dugu".



Iruñeko manifestaziora deitzen. KONTSEILUA

Gogoratu dutenez, "zailtasunak zailtasun, herritarron nahiak eta lanak ekarri gaituzte gauden tokira, eta euskaraz bizitzeko ilusioa eta helburu hori lortzeko gogoa bizi-bizi daude. Hain zuzen, euskaraz bizitzeko herri gogo hori ere izan zen 2015ean gertatutako aldaketa politikoa- ren eragileetako bat".

Aurrekoa

Manifestazioaren deitzaileek gogoratu dutenez, egungo "Euskararen Legeak eskubideak bermatu baino mugatu egiten

dizkie herritarrei. Euskaraz bizitzeko eskubidea tokiaren arabera baizik ez zaio aitortzen herritarrari". Eta horren hiru ondorio aipatu dituzte "gizarte kohesioaren aurka egiten du, tentsioak eraginez eta pertsonen bizimodua zailduduz; irudi txarra zabaltzen du gutaz, bazterkeria lege jasota duen komunitate bat aurkeztuz eta, azkenik, ez du euskararen garapena ahalbidetzen. Ez da dinamikoa, ez da gizartearen euskalduntzearekin batera eguneratu". Horregatik, Iruñera deitu dute.

Esataria: Eneida Gaurko gaiak:

- Jone Aretarekin Nafarroa Oinezko balorazioa
- Sakanako albisten erreposoa

Ostiralero 9:30ean
SAIOA

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astehenetik ostegunera
Metropoli forala
9:00etatik 11:00etara



107.3 FM
beleixe
guaixe.eus-en ON LINE

Oinez egunaren balorazio ona

Iñigo Aritza ikastolak antolatutako ospakizuneko ibilbideko zinta Benignoren taldeko Tere Irigoienek eta Juan Manuel Galartzak moztu zuten. Tuterak lekukoa hartu zuen ekitaldian ikastolak bere langile guztiak omendu zituen

ALTSASU

Eguraldia lagun, milaka euskaltzale ibili zen Nafarroa Oinezko zirkuituan barna. Nafarroako ikastolen aurreko festa guztietatik bereizten zuen bereizgarri bat bazuen aurten ospakizunak: inklusibitatea, arlo guztietan ulertuta. Eta erronka hori edeki bete zela esan zuten antolaketazatik. Horren adibidetzat inklusio tailerra jarri zuten. Ekintza guztiak arrakastatsuak izan zirela esan zuten antolatuzaileek, bereziki nabarmenduz

Haurren Hiria eta Erronka. Gazte taldeen arteko lehiaketa Altsasuk irabazi zuen. Ospakizunaren “oso balorazio ona” egin zuten, “aurreikuspenak bete eta gainditu egin dira”.

Iñigo Aritza ikastolak Nafarroa Oinez baliatu zuen bere langile guztiak omentzeko. Gurasoekin eta ikasleekin batera langileak “funtsezko zutabea” direla airtortu zuten eta 40 urtetan egingandako lana eskertu zieten “elkarlanari eta konpromisoari balioa emategatik”. Langile eta lan-

gile ohi guztien izenean Sonia Lizarragak eskerrak eman eta esan zuenez, “gogotsu eta ilusioz ari gara esparru guztietan, Iñigo Aritzak aurrera egin dezan. Gustura eta harro gaude Iñigo Aritzako kide izan eta garelako”.

Batez ere goizean, albistea jakin berritan, baina egun guztian ikastola eta Nafarroa Oinez komunitatea osatzen zuten guztiak saminak jota ibili ziren lanean. Guztiek ere auto istripuan hildako ikasle ohia eta haren familia zituzten gogoan.





BIKAIN
GARAJEA, S.A.L.
948 460 037 Arbizu
948 468 441 Altsasu

**Auto berri eta
bigarren eskukoen
SALMENTA**

**Mekanika
Elektrizitatea
Txapa
Margotzea**

Fusilatu zuten Martirena oroitzeko plaka jarriko dute

Victor Martirena Alegria fusilatu zutela 82 urte beteko dira igandean. 1936ko estatu kolpearen ondoren errepublikazale uhartearra preso hartu eta Iruñera eraman zuten. Espetxetik atera eta Iberoko Zurbao parajearen fusilatu zuten, beste hainbatekin batera. Haren gorpuzkina 2015eko abenduaren berreskuratu zuten eta hurrengo urtean identifikatu zuten. Gorpuzkiak azarotik daude Uharte Arakilgo hilerrian. Eta, hain zuzen ere, han bertan Martirena omentzeko plaka jarriko dute igandean, 13:00etan.

Uharte Arakilgo Udalak eta 1936-2016 Uharte Arakil, 80 urte memoria galtzen taldeak antolatu dute ekitaldia igandeko ekitaldia. Horren aurretik, ordea, Amaia Kowash Velasco ikerlariak hitzaldia eskainiko du udallexean gaur, 19:00etan. *Sareak ehuntzen, San Kristobal Fuerteko presoekin elkartasuna izan zuten emakumeak (1934-1945)* (2017, Nafarroako Gobernu) liburua aurkeztuko du. Argitalpen horretan Kowachek azaltzen du emakume-taldeak Ezkaba mendiko kartzelako presoek elkartasuna eskaintzeko nola antolatzen ziren, pobrezian bizi izan baziren ere zer errutina sortu zituzten, presoek laguntzeko, janaria edo arropa emateko eta bisitak egiteko.

Aralarko arkeologia-indusketaren emaitzak azalera

Fran Valle de Tarazagak eta Emma Bonthornek zuzendutako Adituko arkeologo taldea Aralarko santutegi inguruan egon da lanean 3 urtez. Aurreko urteetan santutegiaren iparraldean opatutako paretan inguruan ikerketan sakondu zuten udan. Lortutako emaitzen berri emanen du Valle de Tarazagak Zazpizteko elizan bihar, 17:00etan.

Arakil eta bere historia pausoz pauso ezagutzeko aukera

XI. historiaz beteriko mendi martxa antolatu du Arakilgo Udaleko kultura zerbitzuak biharko. Ibilbidean Jokin Lanz historialariak azalpenak emanen ditu. Ibiltariak 09:00etan Satrustegitik abiatuko dira Berama despopulaturantz. Gero Beorkozulo, Zuhatzuko muga, Martijaren borda, Iturmurtu iturria, Arrurteko haitzak, Zuhatzuko lautadak, Satrustegiko dermioa eta Satrustegi zeharkatuko dituzte. Behin herrian, izena eman dutenek (948 500 101 edo 634 584 223), Astamendi elkartean bazkalduko dute. Egitaraua txondorrari buruzko film laburraren emanaldiarekin osatuko da. Hori 18:00etan izanen da, elkartean.

Gazte asanbladak birpentsatzeko saioak

Sakanako 10 gazte erakundek haien egungo “egoera irauli eta ekimena hartzeko” prozesua abiatuko dute ostegunean eta abendu akaberara arte luzatuko da. Euren proiektua zehaztu eta helburuak lortzeko bidea definitu nahi dute

SAKANA

Irurtzun-Arakilgo, Lakuntzako, Arbizuko, Etxarriko, Bakaikuko, Iturmendiko, Urdiaingo, Altsasuko, Olatzagutiko eta Ziordiko gazte asanbladek *Erroetara joz, pauso berria zerumuga!* jardunaldiak antolatu dituzte. Horren guztiaren abiapuntua joan den urtean Ziordian antolatu zuten Sakanako Gazte Egunean dago. Zenbait gairen inguruko lanke eta eztabaida sustatu zituzten. Gazteek aitortu dutenez, “perspektiba bateratu batetik elkarlotzeko zailtasunak izan genituen. Gazte asanbladen definizioa garatu gabe genuenaren ondorio zela ikusi dugu. Zer garen, nola ulertzen dugun gazteria, zer funtzio eman gaztetxei...”

Gazte antolakundeetako kideek esan dutenez, “egoera horretan egoteak, asko zailtzen du gure proiektuen garapen eta hedapena. Definizio ezak noraezera kondenatzen gaitu. Eta noraez horrek, lanketak perspektiba bateratu bat elikatzen urrun, egungo sistemaren errealitatearen inertziei erantzuten dio”. Horren adibide lirakeke, esaterako, atxiloketen, gaztetxeen husteen eta hilketa matxisten salaketak edo AHTren kontra egitea. Gazteek laburbilduta: “sistema kapitalistaren aurka egin, baina alternatibarik erakitzeke norabide garbirik gabe”. Asanbladetatik “aldatzeko beharra” sumatzen dute; “inertziei erantzutea, sistemaren erritmoen menpe uzten gaitu. Egoera irauli nahi badugu, inizatiba guk izatea beharrezkoa da”.

Sakanako gazte asanbladetako kideek jardunaldietan, hasteko, euren proiektua definituko dute. Horretarako, zuzentzen diren gazteriarren sektoreaz, gazte asanbladez eta gaztetxeen proiektuez hizketatuko dira. “Eztabaida hauen bidez, gure helburura iristeko bidea argitzen saiatuko gara”.



Joan den urteko Gazte Eguna Ziordian . ARTXIBOA

Egitaraua

Azaroak 1, osteguna

- **11:00** Gazteria langile klasean hitzaldia. Gazteriarren subjektibitateaz hausnartzen. Zertan eragiten gaitu gazte izateak? Arbizuko Argi-bidean.

Azaroak 17, larunbata

- **11:00** Zer da langile klaseko kide izatea? Hitzaldia. Langile klasearen definizioaz hausnartzen. Iturmendiko Ximona gaztetxean.

Abenduak 6, osteguna

- **11:00** Herri eskola, Ikasle Abertzaleak-ek antolatuta. Etxarri Aranazko gaztetxean.
- **16:00** Zer dira gure autogestioatuak? Errekaleor, Maravillas eta Lizarrako gaztetxeetako kideekin. Sistemaren hutsuneak gestionatzeko espazio soilak eta sistema bera gainditzeko proiektu politikoak? Etxarri Aranazko gaztetxean.
- **19:00** Jai egun arrotzei intsumisioa! manifestazioa, Etxarri Aranazten.

Abenduak 15, larunbata

- **11:00** Gazte asanbladen funtzioa borrokan hitzaldia. Zer funtzio izan dute gazte asanbladek Euskal Herriko borrokan? Gazte asanbladen inguruko eztabaidak gogoratuz, Altsasuko gaztetxea.

Abenduak 26, asteazkena

- **11:00** Sakanako gazte asanbladen bilakaera mahai-ingurua. Hizlariak ibarreko gazte asanbladetako kide ohiak. Nola sortu ziren Sakanako gazte asanbladak? Zeintzuk izan dira egondako eztabaida nagusiak?, Urdiaingo Benta gaztetxean.

3zpat4!
IRURTZUNEN!

SAKANA

AZAROAK 10 17:30tan
17:00tan TXOKOLATADA ESKOLAKO PATIOAN

SARBERRAK SALGAN
Piku, Maravillas (IRURTZUN), Galoni (MURCIA) eta Maimor (LEITZA)

Pikuxar

Noticias
LABORAL



Yasmin Novela Mexikoko komunikabide txiki bateko partaidea.

Hizkuntza gutxituak eta hedabideak, Txikiak Handi

Altsasuko kultur gunean Mexiko, Gales, Irlanda eta Euskal Herriko hedabideen berri eman zuten

SAKANA

Nafarroa Oinezen atariko, *Txikiak handitzen: hizkuntza gutxituetako hedabideak munduan* jardunaldia izan zen larunbatean. Iñigo Aritza ikastolak eta Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak antolatu zuten jardunaldia. Hedabideek hizkuntzaren normalizazioan duten garrantziaz pentsatzeko aukera eman zuen jardunaldiak. Proiektuko arduradun Unai Arellanok esan zuen moduan dena ezin baita hezkuntzaren bizkar utzi, eta normalizazioan beste eragile batzuk ere parte hartu beharra dute.

Bestalde, Nafarroa Oinezko igandeko ekitaldian Alfredo Alvaro Igoak, Guaixe Sakanako astekariaren izenean, Txikiak Handi manifestua sinatu zuen. Txikiak Handi manifestuaren sinadurarekin hauxe bilatu nahi da: hizkuntza gutxituen norma-

lizazioaren aldeko babesa bulkatzeko pertsona zein erakundearen atxikimendua. Hala, hizkuntzeko babesa, legaltasun osoa eta gizarteko alor orotan erabiltzeko eskubidea segurtatu ahal izateko.

Alvarok azaldu zuen Guaixe "komunikabide txiki bat" dela, "handien erronka berak dituenak. Horregatik, hedabide txiki asko Tokikom elkartearen" bildu zirela azaldu zuen. Komunikabideek komunitatea sortzen dutela eta Guaixe fundazioaren proiektua babesten duten 1.500 sakandarrandako, udalendako eta Sakanako Mankomunitatearendako eta Nafarroako Gobernuarendako esker oneko hitzak izan zituen. Hizkuntza-ekologiaren aldarrikapena egin eta Maialen Lujanbioren oin ezaguna zuzendu zien Iortian bildutako guztiei: komunitatea egitea "euskaratik eta euskaraz".

Guaixe Tokikom Sarietako finalista

"Medio txikiek egiten dituzten lan ederrak publiko zabalari ezagutarazi asmoz" sortu ziren sariak. Sariketaren bidez nabarmendu nahi da "tokiko hedabideetan lan asko eta ondo" egiten dela.

SAKANA

Epaimahaiaren arabera: "komunikabide handiagotetan modu hotzean eta sentsazionalistotik egindako tratamenduaren aldean, Guaixek beste enfoke bat hartu du, gertutasunak honelako kasuetan izan dezakeen balio erantsia garbi utziz eta erantzun soziala ematen ahaleginduz". Maria Gonzalez Gorosarrik, Goio Arana Arrietak eta Iker Treviño Arantzabalek osatutako epaimahaiak horixe esan zuen Guaixek aurkeztutako lanaz, hiru finalistaren artean gelditu zena.

Sariketan nabarmentzea mezezi izan duen Guaixeren lana 2016ko kinto ospakizunetan Altsasun izandako sexu erasoaren epaiari egindako jarraipena izan da. Hiru piezaz osatutako lan bat izan zuten finalista: berri ematen zuten albisteak, Altsasuko Udaleko Berdintasun teknikari Idoia Goikoetxeari egindako elkarrizketa eta Altsasuko mugimendu feministaren oharra jasotzen zuena.

Maila horretako saria Bizkaiako Hego Uribeko Geuria aldizkariaren *Berba eta Irudia* monografikoarendako izan zen. Eskualdeko sortzaileei egindako elkarrizketa sorta batek eman zien saria. Azalik onena Gipuzkoako Debagoieneko Goiena



Tokikom Sarietako finalistak eta sarituak. TOKIKOM

hedabidearen Puntua astekariak eskuratu zuen, Porrotx ageriren azal bategatik. Ikus-entzuzko onenaren saria, berriz, Hiruka astekariaren *Umeterapia (zahar-etxea eta ikastola sinbiosian)* bideoarendako izan zen. Azkenik, publizitatearen saria Arrasateko Udalak eta Arteman enpresak eskuratu zuten, birziklatzeari buruzko iragarkiagatik.

Euskarazko 60 tokiko hedabide biltzen dituen Tokikom elkarteak eta sariak Bilbon banatu ziren astelehenean. 2017an elkarteke hedabideetan argita-

ratutako lanik onenak saritu zituen Tokikomerek.

Jardunaldia

Tokikom Sarien banaketa elkarteak antolatutako Komunikazioaren alde mugikorra jardunaldien atariko izan zen. Gailu mugikorrek edukia eta informazioa kontsumitzeko modua aldatzen da. Baita eduki eta informazio horiek landu eta ekoizteko ere. Aldi berean, publizitate joerak, datu babeserako legeen eraginak eta datuak aztertu zituzten.

BILTOKI
TABERNA • JATETXEA

ferietan ere,
bokatik barran

948 467 876 • Altsasu

kaxeta
liburudenda / paperdenda

Fotokopiak
liburuak
jostailuak
opariak
eskulanak

Inprimagailuendako
karfutxoak

948 460 477
Larrañeta 19, Etxarri Aranatz

sorgiñak
taberna

LAKUNTZA

948 576 357

Ongi pasa
ferietan!

Hijos de Goikoetxea

Tel. 948 467 317 - 948 562 341 • Geltoki auzoa 11 • ALTSASU

Landa-inguruneke ekintzailletza-programaz bilera

Nafarroako espazio naturalen sareak ekintzailletza-dinamikak abian jarri ditu landa-ingurunean jarduera eta enplegua sortzeko helburuarekin. Horregatik, Iruñean bilera egin zuen asteartean. Han Arakilgo Udala kide den Plazaola turismo partzuegoa eta hark sustatzen duen izen bereko bide berdea ordezkaturata izan zen. Bileraren helburua:

ibilbide-orri bat prestatzen hasi da landa-ingurunean ekintzailletza-programa garatzeko, naturagune horietan ekonomia-, turismo- eta hezkuntza-jarduerak eta enplegua sortzeko helburuz.

Gobernuko lau departamentuk bat egin dute gobernuaren zeharkako ekintzan. Ezagutu sareko espazioen kudeaketa-sistemak dinamizatzeko eta modernizatzeko dinamika da eta "politika soilik kontserbazionistetatik haratago eta natur-ingurunea jarduera-motor gisa hartuta"



LA ENCINA EXTREMADURAKO KULTU ELKARTEA

Erregio-etxeetakoak Urbanan


Beste erkidegoetako erregio-etxeak biltzen dituen Nafarroako federazioak bere kultur astea ospatu zuen pasa den astean. Ostegunetik igandera arteko egitaraua prestatu zuten. Egitaraua igandean Urbanan despeditu zen. Menditik Altsasuko La Encina elkartera jaitzi ziren eta han senidetze-bazkaria izan zuten. Bateko eta besteko musikarekin gozatu zuten guztiek.



PIKUXAR

Basoari beste begirada bat

Zuhaitz motxatuak adaburua edo erdiko adarra moztuta dutenak dira, hala alboko adarrak hazten dira. Zuhaitzak lepatzean, garai batean, aziendarendako bazka (lizar hostoak) edo egurra lortzen zituzten. Halako ustiapenaren arrastoa duten zuhaitzak badira Irurtzunen eta Pikuxarrean antolatuta 50 bat pertsonak haiek ezagutu zituzten larunbatean.



ADERen kanpaina. ADE

Edertutako balkoien lehiaketa antolatu du

200 euroko saria jasoko du balkoi ederrenak. Parte hartzeko sakanakogida.eus web orrian sartu

ALTSASU

Altsasuko Dendari Elkar-teak (ADE) balkoi lehiaketa antolatu du eta, haren bidez, Altsasu dekoratu eta edertu nahi du. Lehiaketaren gaia aterkia edo euritakoa da. ADEko arduradunek azaldu dutenez, "aurki euritakoa hartu eta udaberriko hainbat aste pasa arte ez dugu utziko. Herritarren eguneroko objektu bilakatuko da, erosketak egiteko beharrezkoa izanen dena".

Izena www.sakanakogida.eus web orriaren edo ADEren Facebook profilaren bidez eman daiteke. Parte-hartzaileek ADEren logotipoa jaso eta elementu hori balkoiaren apainketan txertatu beharko dute. Lehiaketako epaimahaia balkoiak azaroaren 5etik 9ra aztertuko ditu. Saria ADEko kide diren establezimenduetan gastatzeko 200 euroko txartela izanen da.

Lehiaketa III. Altsasuko Merkataritza eta Ostalaritza Festa ospatzearekin batera despedituko da azaroaren 9an. Egun horretan aterkia gai duen performancea egingen da. Aterkiak elementu artistiko bihurtuko dituzte. Ondoren, performancea egiteko erabilitako aterkiak ADEko establezimenduetan bezeroen eskura izanen dira.

SDOZ elkarteak merkataritza-gida jarri du sarean

Sakanako Dendari, Ostalari eta Zerbitzuen elkarteak (SDOZ) Internet bidezko merkataritza-gida egin du: www.sakanakogida.eus. Haren bidez elkarteak kide diren establezimenduen berri jaso daiteke. Horiek zortzi sailtan banatu dituzte: elikadura, etxeko apaingarriak eta altzariak, kirola, estetika eta osasuna, moda, ostalaritza, beste zerbitzuak eta liburu-dendak eta paper-dendak. Interneteko atari hori elkarteak sustapen-izena emateko baliagarria izanen da. Udazkena eta gero gida Altsasuko Dendari Elkarte-ko eta SDOZeko kide ez diren establezimenduei ere zabalduko zaie.

Karasatorre isolamendu modulutik atera dute

Juan Ramon Karasatorre Aldaz etxarriarra Castello II espetxean preso dago. Aurreko ostegunera arte isolamendu moduluan zegoen eta ordutik espetxeko modulu normalean dago. Karasatorre beste eskualdeko herritar batekin zegoen moduluak eta biak atera dituzte handik. Frantziak Espainiaren esku utzi zuenetik, etxarriarrak 5 urte izan dute kartzelako isolamendu moduluan sartuta. Hau da, ziegan 20 ordu egoten zen eta 4 ordu burni-harizko teilatua zuen patio txiki batean.

Etxarri Aranazko Sarek presoaren isolamendua salatzeko 20+4 kanpaina egin zuen eta Karasatorren beraren azalpenak ere publiko egin zituen: "isolamenduan tratua oso krudela da. Errespetu gabe tratatzen gaituzte; garrasika, etengabe irainduz... Guri kriston tentsioa eragiten digu egoera honek... Isolamendu egoeran, espetxeak ez du deus egiten presoari laguntzeko, presoak moduluetan birgizarteratzeko ez du ezertxo ere egiten..." Espetxean antolatutako aktibitateetan parte hartzeko eskubidea ukatua zuela azaldu zuen ere. Urtearen zatirik handienean itzalean egoten zen burni-harizko teilatudun patio txiki batera ateratzen zituztela gaineratu zuen.

Azaroaren 4ra begira Altsasun batzarrak egiten ari dira

Azaroaren 4rako España Ciudadana plataformak Guardia Civila errespetatu egiten da ekitaldia du antolatuta Altsasun. Haren berri Ciudadanos alderdiko Albert Riverak eman zuen: "Altsasu espazio sinbolikoa da. Han, inoiz baino gehiago, zerbitzari publikoen askatasuna eta haiekiko errespetua defendatu behar da". Riverak aurreratu zuenez, herritarrez eta gonbidatu bereziz lagunduta Espainiako konstituzioko 4. xedapen gehigarria kentzeko eskatuko du. Vox alderdiak ere bat egingen du deialdiarekin.

Utzi Altsasu bakean lelopean herri-batzarra egin zen atzo. Ospak ere gaia aztertu du.

Gaszte urdiaindarrak auto-istripuan hil zen igandean

19 urteko gaszte urdiaindarrak auto istripuan hil zen igande goizaldean. Berarekin autoan zihozan 21 urteko hiru gaszte arin zauritu ziren. Hirurak Nafarroako ospitale gunera eraman zituzten badaezpada ere. Ezbeharrak San Pedroko bidetik herrira zihozazela gertatu zen. Hildakoa gidatzen ari zen autoa bidetik atera eta Arakil ibaira erori zen. Ezbeharraren berri 5:56an jaso zuten larrialdi zerbitzuek eta hara Altsasuko osasun taldea, Altsasuko suhiltzaileak eta psikologoa bidali zituen. Foruzaingoak hartu zuen ezbeharrak iker-tzeko ardura. Aipatu bide hori urtetan makina bat sakandarrek erabili izan dute Altsasun par-randa egin eta etxerako bueltan. Ezbehar eta susto ugari izan dira. Esaterako, 2017ko azaroaren 5ean beste auto batek ibaian bukatu zuen.

21 egunetan trafiko istripuan hil den hirugarren gizonezko sakandarra da urdiaindarrak. Zerrenda triste hori Olatzagutiko motorzale batek zabaldu zuen, Altsasun izandako istripuan hil zen irailaren 28an. Lastailaren 13an motorzale etxarriarra izan zen ezbeharrean hildakoa. Joan den urtean trafiko ezbeharrean hildako sakan-darren kopuru bera berdindu da hiru astetan.



Aner Galartza, Izaskun Kintana, Egoitz Urritza eta Asier Razkin. ARTXIBOA

Bakaikuren etorkizunaz hausnartzeko egitasmoa

Herritar guztiakin bildu nahi dute. Jubilatuekin eginen da bilera, astelehenean, 16:00etan, auzo gelan

BAKAIKU

Bakaikuko Udalak herriaren etorkizuna irudikatu eta oinarri nagusiak jartzeko prozesua abiatu zuen joan den urteko otsailean. Helburua 2027ko Bakaiku definitzea zen eta horretarako bakaikuarren "iritziak jaso eta haiekin ibilbidea" egiteko asmoa zuen udalak. Baina udal ordezkariak beraiek lana egiteko "zailtasunak" opatu zituzten. "Pausoak ezin aurrera egin" gelditu zirela azaldu digu Aner Galartza zinegotziak.

Lana behar bezala egiteko enpresa bat kontratatzea erabaki zuten, horretarako Nafarroako Gobernuaren 5.400 euroko dirulaguntza baliatuz. Sakanako Garapen Agentziaren aholkuak eta laguntza jaso zituen udalak. Emun kooperatiba ari da irailetik egitasmoan lanean. "Bakaikuren etorkizunaz hausnartzeko eta iparra irudikatuzeko"

parte-hartze egitasmoa martxan jarri du. Zinegotziak azaldu digunez, elkarriketa eta bilera dinamika lantzen ari dira.

Galartzak azaldu duenez, saio horiek "etorkizunari begira jartzeko egiten dira eta herriak dituen beharrei erantzun behar die". Gakoa bi galderen erantzunetan ikusi dute: norantz joan nahi dugu? Zer-nolako herria nahi dugu etorkizunean?

Martxan jarriko den dinamika bidez Bakaikuko errealitatea herritar guztiakin aztertu nahi dute, "hainbat ertz eta ikuspegietatik". Eta orain jubilatuekin elkartu nahi dute, haien "testigantzetatik asko ikasi" dezaketela uste dutelako eta haien "esperientziatik ekarpen asko egin" ditzaketelako. Horregatik, 65 urtetik gorako bakaikuar guztiei zuzendutako saioa eginen da astelehenean, 16:00etan, auzo gelan.

Altsasuko etxegabeko aterpeko lanen deialdia egina

Altsasuko Udalak kamineroena zen eraikinetako batean etxegabeendako aterpea egokituko du. Lanak egin nahi duten enpresek azaroaren 2ra arte aurkeztu ditzakete proposamenak. Lanek urtea despeditzerako eginak egon behar dute eta haien truke enpresak 136.684,18 euro (BEZ barne) jasoko ditu. Gobernuak 50.000 euroko laguntza eman du.

Olatzagutiko Udalean idazkari-kontu hartzaile bila

Olatzagutiko Udalak jakinarazi du denboraldi batez eta kontratu administratibo batez idazkari-kontu-hartzaile lanpostua betetzeko deialdia egin duela, asteazkenean hutsik geldituko baita. Deialdiaren oinarriak www.olazti.eus web orrian daude. Interesa dutenek azaroaren 21aren, asteazkena, 14:00ak baino lehen aurkeztu beharko dute.

EUSKARALDIA
11 EGUN EUSKARAZ
2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra

IZEN-EMATEA
www.euskaraldia.eus

Gazte egunarekin festa-giroa izanen da Irurtzunen bihar

Gaurko afariaren ondoren, Enara Urrak, Lucia Zuñigak eta Lucia de la Pisak Barazki Gunean kantatuko dute

IRURTZUN

Irurtzango-Arakilgo Gazte Asanbladak Gazte Eguna antolatu du biharko. Ospakizunaren 5. edizioa da antolatutakoa. Gaurkoaren ondoren egitarau beteagoa biharko dute prest. Arakil aldeko eta Irurtzango gazteak elkar-tu eta 13:00etan piztuko dute festa iragartzen duen etxajua. Eta segituan gaita-poteoan ariko dira Barazki Gunean. 14:00etan bazkaltzera eseriko dira eta, handik jaso gabe, bingo musikatua segituko dute. Aterpea utzi eta 3indarrok elektro-



txarangarekin kalejiran ariko dira. Musika jaialdiarekin itxiko da egitaraua: Txartoak, Katez eta Trikidantz taldeen kontzertuez dohainik gozatzeko aukera izanen da eta, festa despeditzeko, ErBol dj ariko da.

Manez eta Kobreak kontzertua

Azaroak 17 larunbata 19:30

Altsasu Iortia Kultur Gunea

Sarrerak: Aurretik, 10€ (BERRIALagunek 8€)
Egunean, 12€ (BERRIALagunek 10€ - txartelarekin)

Sarrerak salgai: BERRIAN:
Berria.eus/berrialaguna/denda helbidean edo
943 30 43 45 telefonora deituz.
Iortia Kultur Gunean eta www.iortiakultura.com helbidean

Antolatzaileak:

Laguntzaileak:

Nafarroa dastatzeko gonbidapena

“Dastaketa-foro-ikuskizuna” egingen da larunbatean, 18:30etik 21:00etara, Altsasuko Iortia kultur gunean. Plaza kopurua mugatua denez, gonbidapenak aldeztu aurretik Altsasuko kultur gunean jaso daitezke

ALTSASU

Gora eta Behera jardunaldia Nafarroan sortzen diren lehen sektoreko produktuak ezagutzeko formatu desberdina da. Herrialdeko hainbat txokotako produktuak dastatzeko eta elkar nola ulertu eta osatzen duten ikusteko pentsatua dago “dastaketa-foro-ikuskizuna”. Baina kontakizunak, esperientziak, begiradak eta musika ona “dastatzeko” aukera ere bada biharko jardunaldia.

Nafarroako lehen sektoreak sortutako produktuen berri emateko “dastaketa-foro-ikuskizuna” da. Foru geografía zabaleko produktuak elkarrekin nola moldatu eta osatzen diren ikusteko aukera izanen da. Aldi berean, ekoizle nafarrak omen-du eta sustatuko dira. Hori guztia gastronomia, kontakizunak eta musika dastatzea jasotzen dituen jardunaldi bakarrean.

Intia enpresa publikoak, Reyno Gourmet eta Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentuak, Altsasuko Udalaren eta Garalurren laguntzaz antolatu du jardunaldia. Antolatzaileen iritziz, “lurraldeak dira mundu zurrango eta egonkorrago bat eraikitzeko tresnarik onenetako bat; hori bai, lurralde berriak badira, kulturalki adimentsuak eta iraunkorrak”. Biharko ekitaldian “gure produktuak eta ekoizleak omendu eta sustatu nahi ditugu, eta gure gazteei Nafarroa berraurkitzen lagundu nahi diegu (belaunaldi bakoitzak burutu behar du esperientzia hori)”.

Egitaraua

Antolatzaileek azaldu dutenez, jardunaldiaren bidez “aukera bat oparitu nahi diegu geure buruari: lurraldeak eta euren etorkizuna zerez eginda dauden elkarrekin hitz egiteko, lurralde horiek bizitza proiektu asko eta askotarikoak inplementatzeko



2016ko ferian talogileak lanean. ARTXIBOA

NAFARROAKO EKOIZLEAK OMENDU ETA PRODUKTUAK SUSTATZEKO MODU BERRIA DA

agertoki gisa aldarrikatzeko eta konpromiso simple baina funtsezkoak hartzeko, parte hartzearen ordain gisa”.

Sei ataletan banatu dute biharko jardunaldia. Hasteko azalduko dute “lurralde kulturalki adimentsuak eta iraunkorrak” zer diren, nola ari diren aldatzen, zer eginkizun izanen duten gure biografietan. Segidan, “tradizioa berrikuntza gisa, begirada globala eta tokikoa” gaia hartuta, gazteak, lurraldeak eta etorkizuna izanen dituzte hizpide. Segidan Gora eta Behera programaren berri emanen dute, “gure produkturik onenak uzartzeko eta produktu horiei esker Nafarroako eremu desberdinak berraurkitzeko programa”.

Programan iragarrita dagoenez, honako produktuak dastatuko dira: Ricardo Palaciosen Aralaren hazitako txahala, Lodosako

pikillo piperrak, Nafarroako zainzuriak, Josenea landare aromatikoak, Lezaun ardo ekologikoak, Patxi Amillanoren gazta ekologikoa, Katealderen pate ekologikoa eta Mendabiako La Maja olioak. Hori gutxi ez eta Baserriberriko sukaldariburu Iñaki Andradasek aipatutako jakiekin prestatutako bi mokadu dastatzeko aukera izanen da: txahal tartarra, pikillo kimchirekin eta foie Carolina, egurrezko sutan erretako pikilloen marmeladarekin. Guztia laguntzeko aroma belarrak dituen tomate tea eta Pastas Urrutia etxeak egindako patxaran pastak.

Despeditzeko, “ingurune hurbilenetik gauza asko egin daitezke produktuen, ekoizleen, paisaien eta abarren alde”. Hori jakinik azken konpromisoa hartuko dute parte-hartzaileek. Eta musika protagonista dela, “jatorrizko izendapen” baten istorioa ezagutuko dute: haren egunerokoa, amodioak eta desamodioak ere. “Artzainei, gazte, ardiei, abelbideei eta immigrazioari buruzko kontakizun bat; finean, lurralde bat eratze-ko moduei buruzko kontakizuna”.



OSTIRALA 26

17:00 Etxajua, Gure Etxea eraikinetik.

18:15 Haurrendako jolasak, puzgarria, japoniar bonbak eta txokolate-jana, Foru plazan. Peñen batzordeak.

20:00 Kick boxing eta boxeoa Burunda pilotalekuan. Nafarroako kick boxing eta boxeoko federazioak.

20:30 Pintxo-potea gaztetxea eta kontzertua: Tokan 2 La Polla.

22:00 Oreina filma lortia kultur gunean.

LARUNBATA 27

11:00 Altsasuko ferietako ikastetxeen arteko XXXIX krosa Foru plazan. Antolatzailea: Dantzaleku-Sakana.

12:00 XI. Onddo lasterketa ez lehiakorra, Foru plazatik. Antolatzailea: Dantzaleku-Sakana.

13:00 Eneko Lazkoz eta Julio Sotorekin bertso poteoa, Foru plazatik abiatuta. Antolatzen du: Euskal Herrian Euskaraz, Mank-ek lagunduta.

12:30 Altsasuko erraldoi eta buruhandiak, kultur guneko zabalgunetik hasita.

15:00 Peñen bazkaria, Zelandi frontoian. Ondoren, kafea eta mailoten banaketa.

16:30 Peñen kafea, elkartez elkarteko poteoa eta kalejira, auzatea ibilbidean zehar.

17:00-19:00 Puzgarriak, kultur guneko zabalgunean.

18:30-21:00 Gora eta behera.

Nafarroako nekazaritzako produktuen dastatzea, foroa eta ikuskizuna, lortia kultur gunean.

Antolatzailea: Nafarroako Gobernu eta Intia.

19:00 Burundar Txistulariekin kalejira.

19:30-21:30 Dantzaldia Trikitiens taldearekin.

20:00-21:30 Peñen jaitsiera eta plazara iristea.

22:00 Zezensuzkoa, Foru plazan.

22:30 Magra-jatea gaztetxean.

Antolatzailea: Altsasuko Peñak.

24:00 Matraka elektrotzaranga.

Antolatzailea: Altsasuko Peñak.

24:00-02:30 Dantzaldia Trikitiens taldearekin.

DOMEKA 28

9:00-14:30 Altsasuko txistularien diana.

Zaldi lehiaketa eta sarien banaketa, Zelai kalean.

Zaldi azoka, Zelai kalean.

Latxa ardien erakusketa, Ferialeku kalean.

Pirinioetako behi erakusketa, Ferialeku kalean

Nekazaritzako elikagaien azoka, Gartzia Ximenez kalean eta Foru plazan.

Erreminten eta makinaren erakusketa, Otadiko Kristo Deuna kale inguruan.

Azoka (arropak, oinetakoak...), Baratzakobide plazan.

Mikologia erakusketa, Garbitoki eraikinean. Antolatzailea: Altsasuko mikologia elkarteak.

XXXII. Argazki rallya. Antolatzailea: Altsasuko Mendigoizaleak.

Sakanako VII. Arte azoka, lortia kultur gunean. Antolatzailea: Artebide taldea.

12:00-13:30 Bordetxe abereak, txikiendako, Zubeztia plazan.

18:30 Taekwondo erakustaldia, kultur guneko zabalgunean.

Antolatzailea: Bargagain taekwondo kluba.

19:00-20:00 Beietz taldearen kontzertua, Foru plazan.

19:30 Oreina filmaren emanaldia, lortia kultur gunean.

20:00 Japoniar bonbak, buruhandiak eta zezensuzkoa, Foru plazan.

Altsasuko feriak, asteburu bete eskaintza

Aziendarekin batera, etzi goizean, 70 salmahaitik gora jarriko dira. Hala ere, ospakizunak gaur abiaraziko dituzte peñek. Haurrendako jolasak, kirol ugari, herri bazkaria, musika eskaintza zabal eta beste izanen dira

ALTSASU

Ferietako asteburua hemen da. Gaur arratsaldetik domeka iluntzera arteko egitaraua prestatuta dago. Peñek piztutako etxajuak abiaraziko ditu ospakizunak. Haurrendako eskaintzarekin batera, kontzertua, dantzaldia, kalejirak, kirol eskaintza zabal, bertso-poteoa, bazkariak eta bestek jai-girorako oinarria jarriko dute. Domekan azientandaren eta salerosketaren inguruan ardaztuko da eguna, nahiz eta eskaintza hori baino zabalagoa den.

Aziendari dagokionez, Zelai kalean 19 abeltzainek lehiaketara aurkeztutako 66 buruak

izanen dira ikusgai. Ferialeku kalean, berriz, bost abeltzainen 41 behi izanen dira ikusgai. Handik gertu 10 ardi talde txiki ikusgai izanen dira. Bestalde, 48 elikagai ekoizleek salmahaiak jarriko dituzte Altsasun. Gartzia Ximenez kaleko postuetan ezitia, babarrunak, garrapiñadak, ardi gazta, barazki kontserbak, bonboiak, ogia, euskal pastelak, gazta, kontserbak, txistorra, taloak, ahatekiak, txerrikiak, karakolak, behi esnekiak, txokolateak, hestebeteak, eta bestelakoak erosteko aukera izanen da. Ferialeku kaletik eta Foru plazatik pasatzen direnek, berriz, 20 artisaren eskaintza izanen

dute. Salmahaietan bitxiak, artillezko arropa, poltsak, zurezko jostailuak, saskiak... Gainera, farak eta nekazaritzako tresneria ere izanen dira.

Jakin beharrekoak

Feriak direla eta autobus geltokia tokiz aldatuko da, Isidoro Melero kaletik Idertzegain kalera pasaz, Aita Barandiaran adinduen egoitzaren ondora hain zuzen. Udaletik, bestetik gogorarazi dute etxeko eta familiako ardurak denondako direla. Azkenik, sexu erasoen kontrako jarrera agertu eta gogorarazi dute ezezkoak ezetz esan nahi duela beti.

ALTSASUKO
urriak
26 · 27 · 28

Sakana
Feriak
2018

BARRESLEARI:
Unamuno

Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

ALZATE S.I.
CONSTRUCCIONES
www.alzate.com

LACUNZA
Sakanekin.net



Onddo lasterketan parte hartzera animatu du Dantzaleku Sakanak.

Ferietako onddo lasterketarako prest?

ATLETISMOA Altsasuko ferietan, bihar, 11:00etan 39. Eskolarteko Krosa jokatu da, 11:30ean Oinezko Onddo Martxa eta 12:00etan Onddo Lasterketa (6,5 km). Bihar bertan eman ahal da izena, goizeko 10:00etatik aurrera, Gure Etxean

Altsasuko Feriei lotuta dago Dantzaleku Sakanak Atletismo Klubak hainbat babesleren laguntzarekin antolatzen duen Onddo Lasterketa. Udazkenean onddoak jaiotzen diren Altsasuko paraje zoragarrietan barna korrika egitera edo oinezko paseoa ematera gonbidatzen gaituzte, urtero, Dantzalekukoek. Zita bihar izanen da, larunbatean.

Hiru proba batean

Hasteko, goizeko 11:00etan neska-mutikoen lasterketak izanen dira Altsasuko Foru Plazan, 39. Eskolarteko Krosa hain zuzen ere. Ondoren, 11:30ean, Oinezko Onddo Martxan parte hartuko dutenak aterako dira paseoa egitera eta 12:00etan abiatuko da helduen Onddo Lasterketa (6,5 km).

Ez lehiakorrik

Jakina denez, proba ez lehiakorrik dira hirurak, antolakuntzak ez ditu denborak hartzen ez sailkapenik egiten. Atletismoa eta kirola sustatuz goiza ederra pasatzea da helburua, onddoak ateratzen diren parajeetan, lagunartean eta inolako lehiakortasunik gabe goiza bikaina pasatzea.

Izena ematea zabalik

Dagoeneko jende askok eman du izena www.dantzalekusakana.com web gunean, baina egunean ere izena eman ahal da Gure Etxean edo Foru Plazan, 10:00etatik aurrera, eta dortsala jasotzerakoan 5 euro ordainduko dira. Jasotakoa Dantzaleku Sakanak klubarendako izanen da.

Txikienak goiztiarrenak, 11:00etan

Hasieran kategoria txikikoen lasterketak jokatu dira, 11:00etan, Altsasuko plazan. Zehazki, 39. Eskolarteko Krosa izanen da jokoan egongo dena. Lasterketa hau orduko Altsasuko lau ikastetxeetako –Iñigo Aritza, Zelandi, Korazonistak eta Mojak– neska-mutikoengan atletismoa sustatzeko antolatzen hasi zen Dantzaleku Sakanak. Bukaeran indarrak berreskuratzeke aukera izango dute korrikalari gazteenek.

Oparia eta 3 onddo saski


Ondoren, 11:30ean, oinezko onddo martxan parte hartuko dutenak abiatuko dira eta 12:00etan onddo lasterketakoak. “Ibilbidea betikoa izango da, 6,5 km-koa. Oinezkoak eta korrikalariak eremu beretan ariko dira, baina ibilbide ezberdina egingo dute, elkarren artean traba ez egiteko. Plazatik, basoititik, San Pedrotik... onddo artean bikain ibiliko gara” aipatu dute Dantzaleku Sakanakoek. Onddoak ez daukela, hori da aurtengo kezka,

BIHAR, LARUNBATEAN, GOIZEKO 10:00ETATIK AURRERA EMAN AHAL DA IZENA GURE ETXEAN

baina Dantzalekukoek ziurtatu digute eurek 3 onddo saski zozketatuko dituztela korrikalarien artean, proba bukatuta, Foru Plazan.

Onddo lasterketan aritzera animatu dute

Korrikaren eta oinezkoen festa honetan parte hartzeko deia egin dute antolatzaileek. “Aurreko urtean 369 helduk parte hartu zuten oinezkoan eta korrikaren eta 59 neska-mutikok Eskolarteko Krosean. Beraz, 428 lagun guztira. Ea aurten beste horrenbeste animatzen garen” adierazi dute Dantzalekutik. Parte-hartzea eguraldiaren araberakoa izango da, nolahi ere. Badi-rudi larunbatetik aurrera eguraldia okertuko dela, baina ea goizean aguantatzen duen.



Geroz eta emakume gehiago aritzen dira.



MILA ESKER 

gaztaineri, ardiei, erbiei, bustitako lumeri,
haritzei, loreei, kilkerrei, izar basatiei,
beleei, zozoei, erleei, usoei, atxitamutxitei,
armiarrei, hirustei, masustei, satorrei,
katuei, onddoei, txoriei eta

zuri lehendaBIZI



Olga eta Benar Garziandia, rollerskian, paraje ikusgarrian. IZASKUN IJURKO

XII. Uharte Rollerski Etxarrin

ROLLERSKIA Uharteko Ipar Eski taldeak antolatu du lasterketa, Irrintzi Ski Taldearen, Mank-en eta Etxarriko Udalaren laguntzarekin. Bihar, larunbatean, 11:00etan, proba nagusia (9,8 km) eta gazteena edo proba ez lehiakorra (2,8 km) izanen dira

Rollerskia elurra ez dagoenean eskia lantzeko modalitate gisa sortu zen, entrenatzeko, teknika hartzeko eta eskian ikasteko ere bai. Eski itxura duten gurpildun patinete antzekoak erabiltzen dira, rollerskiak, eta haiek jantzita eta bastoiak eskuan, ipar eskiaren antzeko mugimenduak egiten dira errepidean. Baina hasieran entrenamendu hutsa izateko jaiotzen zen modalitateak bere entitate propioa hartu du. Horrela, Euskal Herriko Rollerski Liga jokatzeko da, 8 proba dituen, tartean Nafarroan antolatzen diren bi proba. Eta horietako bat larunbatean, urriaren 27an jokatuko da, Etxarri Aranatzeko, XII. Uharte Rollerski Saria, hain zuzen ere.

Txapelketaren nondik norakoak azaldu zizkiguten Uharteko Ipar Eski Taldeko Jeronimo Garcia Frescak, talde horretako

eskiatzaile, biatloilari eta rollerskilaria den Olga Gartzandia Ijurko etxarriarrak, Irrintzi Ski taldeko Aritz Pascual Garjonek eta Etxarrin jokatuko den probaren antolakuntza lanetan dabilen Izaskun Ijurko etxarriarrak. Sakanako Mankomunitateak eta Etxarri Aranatzeko Udalak dira probaren laguntzaileak, babesleekin batera.

Etxarriko proba eta Beorlegikoa
“Euskal Herriko Rollerski Ligarako baliagarriak diren bi proba nafarrak guk antolatzen ditugu, Uharteko Rollerski taldeak

**ETXARRIKO
ROLLERSKI PROBA
KLASIKOA IZANGO DA.
11:00ETAN HASIKO DA,
LIZARRAGABENGOAN**

eta Irrintzi Eski taldeak. Aurten pentsatu genuen bi probak asteburu berean egitea, bereziki kanpotik etortzen direnei begira. Horrela, urriaren 27an, larunbatean, rollerski proba klasikoa antolatuko dugu Etxarrin, XII. Uharte Rollerski Saria, eta hurrengo egunean, igandean, patinatzailearena edo estilo librekoa, IV. Beorburuko Rollerski igoera, 6 km-ko igoera Ollakarizketatik Beorbururaino. Euskal Herriko Ligarako baliagarriak izango dira, baina proba bakoitzak bere sariak izango ditu. Eta bi proba nafarretan parte hartzen dutenekin sailkapen berezia egingo dugu ere, Nafarroako Rollerski Asteburuko Sariketa bat” adierazi zuten.

Bi modalitate: klasikoa eta librea
Rollerski klasikoa eta Rollerski patinatzailea edo estilo librea

bi modalitate ezberdin dira. “Klasikoan gurpilak ez dira atzeraka mugitzen, soilik aurrera, eta eskiatzen bezala zoaz, rollerskiak paralelo dituzula. Aldiz, patinatzaile estiloan edo estilo librean, gurpilak atzeraka ere mugitzen dira eta rollerskiak V moduan eramaten dira” azaldu zuen Olga Gartzandia Ijurko etxarriarrak. Olga eta bere aita Benar puntako ipar eskiatzaileak dira, Uharteko Eski taldekoak eta rollerskian ere lehiatzen dira. Olgak, gainera, biatloia lantzen du, tiroa eta eskia biltzen dituen kirola, eta puntako kirolaria da. “Lehen izan zen Estatuko Biatloi Txapelketan” nabarmendu zuen Amaia Gerrikagoitiak.

Nafarroan hiru eski talde daude, Errokarikoa, Irrintzi eta Uharteko Iruñekoa. Kompetizio taldeetan 70 eskiatzaile inguru ibiltzen dira lehiatzen Nafarroan, eta horietatik askok rollerskia egiten dute. “Hasieran udaberriaren antolatzen genituen lasterketak, baina eski denboralditik oso jarraian ziren eta orain gehienak udazkenara atzeratu ditugu. Rollerski klasikoko proba aurten Etxarrira ekarri dugu; bertako jendea klubean dagoenez eta Etxarri beharrezkoak ziren baldintzak betetzen zituenez, bertan egitea erabaki genuen” azaldu zuen Uharteko Eski taldeko Jeronimo Garciak.

Nagusiak eta gaztetxoak

Etxarri Aranatzeko bihar jokatuko den XII. Uharte Rollerski Saria rollerski klasikoko proba izango da. Puntako rollerskiatzaileak eta afizionatuak arituko dira elkarrekin. “Imanol Rojo, Diego Ruiz eta Carlos Llanes olinpikoak dira eta tarteka etortzen dira gure probetara. Beraiek punta-puntakoak dira, eta gero maila altukoak ditugu, Bernar eta Olga Gartzandia, esaterako. Baina guk kompetizio maila eta maila herrikoia uztartzen ditugu, eta aldi berean rollerskian aritzen diren zaletuak animatzen dira, esaterako, gaztetxoentzako. Oso giro polita izaten da, eskiatzaile guztiak biltzen gara; proban seriotasun puntua

**"PROBA IKUSGARRIA
DA ETA ETXARRIRA
GERTURATZERA
ANIMATZEN
ZAITUZTEGU"**

dago baina oso herrikoia eta alai da aldi berean” gaineratu zuen Garciak. Bertakoez aparte, Asturiasetik eta Madrildik etortzen dira, baita Kataluniatik ere, baina azken horiek gutxiago dira, beraien lasterketak eta kopa propioa baitituzte.

Etxarriko XII. Uharteko Rollerski Sariak bi proba izanen ditu. Nagusian 14 urtetik gorakoak ariko dira (9,8 km), eta 14 urtetik beherakoentako 2,8 km-ko proba izanen da. Goizeko 11:00etan helduen proba hasiko da, Lizarragabengoatik. Mass start irteera izanen da, denok batera aterako dira. Berroetako bidetik Etxarri Aranatzera helduko dira rollerskiatzaileak eta bertatik zirkuitu moduko bat prestatu dute: Bakaikurantz joko dute rollerskilariek, eta gasolindegiko ondoan dagoen errotondan, buelta hartuko dute, Etxarriko sarrerako errotondora. Zirkuitu honi bi buelta eman eta gero, guztira 9,8 km osatuko dituzte. Bestalde, 14 urtetik beherakoek Etxarri Aranatzeko abiatuko dute euren proba, 11:05 inguruan, eta 2,8 km-ko ibilbidea egingo dute.

“Proba ikusgarria izaten da, azkarrenek 20 minutu eskasetan egingo dute proba. Guztia antolatzen 15 boluntario inguru arituko dira eta Foruzainek eta anbulantzia batek zainduko dute proba” aipatu zuen Irrintzi Ski taldeko Aritz Pascual Garjonek.

Izena ematea, dohainik

Izena ematea bihar izanen da, goizeko 10:00etatik aurrera, Etxarri Aranatzeko udaletxe parean. Dohainik izango da. Proba hauek eskiatzaileen bilgune izaten dira eta giro oso polita sortzen dela aipatu zuten antolatzaileek. “Bukarera, kirolari guztiak oroigarria jasoko dute eta babesleek eskaintako produktuen zozketak egiten ditugu. Eta errugbian bezala, hirugarren denbora izango dugu, auzate ederra izango da guztiendako” gaineratu zuten “Bitxia izango da, Sakanan ez da halako probarik jokatu. Ikusteko bada ere, bihar Etxarrira gerturatzerako animatzen zaituztegu” aipatu zuen Amaia Gerrikagoitia kirol teknikariak. Olga Gartzandia ezingo da aritu, Jakako teknifikazio taldearekin kontzentratuta baitago, Italian, baina Etxarrira joatea animatu du, rollerskia gertutik ezagutzera eta lasterketaz gozatzerako.

Ezkurdia Lau t'erdiko finalerdietara

PILOTA Lau t'erdiko final laurdenetako ligaxkako 2. jardunaldian Altuna 10 tantotan utzi zuen arbizuarrak eta zuzenean sailkatu zen finalerdietarako. 3. jardunaldian Olaizolaren kontra jokatzekoa zen, baina Goizuetakoa eskuko minarekin dago

Lau t'erdiko Txapelketan final laurdenetako ligaxkak aurrera jarraitzen du. Asteburuan 3. jardunaldia jokatu da.

Lau t'erdiko final laurdenetako ligaxkan, A multzoan, Joseba Ezkurdiak orain arte jokatuak bi partidak irabazi ditu. Igandean, Altuna III.aren kontra ikusgarri aritu zen arbizuarrak; pilota abiadura ikaragarriarekin mugitu zuen eta bere kolpe indartsuekin partida bere alde eraman zuen: 10 tantotan utzi zuen Altuna. Olaizolak, aldiz, jokatuak bi partidak galdu egin ditu eta Altuna III.ak eta Victorrek garaipen bana eta porrot bana dute.

Final laurdenetako ligaxkako 3. jardunaldian Ezkurdia eta Olaizola asteburuan jokatzekoak ziren, baina Olaizolak eskuko mina du eta ez dago Ezkurdiaren kontra aritzeko moduan. Beraz, Ezkurdiak aurrera egingen du finalerdietara A multzoko taldeburu moduan.



Ezkurdia takoak kentzen. UTZITAKOIA

Ondorioz, igandean Eibarren jokatu den Altuna III.aren eta Victorren arteko partidaren irabazlea izango da A multzoan finalerdietarako sailkatuko den beste pilotaria. Bestalde, lau t'erdiko partidaren orde, Ez-

kurdiak binakako partida jokatu du, hain zuzen ere igandeko Eibarko jaialdia zabaltzen duena, Erostarbarekin batera. Irribarria eta Rezusta izango dituzte aurkari.

B multzoa

Lau t'erdiko final laurdenetako ligaxkako beste multzoan, B multzoan, Bengoetxea VI.ak bi garaipen ditu eta dagoeneko finalerdietarako sailkatua dago. Elezkano II.ak jokatuak bi partidak galdu egin ditu eta ez du inolako aukerarik, eta Urrutikoetxeak eta Retegi Bik garaipen eta porrot bana dituzte. Hortaz, Urrutik eta Retegi Bik larunbatean ligaxkako 3. jardunaldian Labriten jokatu duen partidak erabakiko du zein izanen den beste finalista. Ligaxkako 3. jardunaldiko beste partida gaur, ostiralean jokatu dute Bengoetxea VI.ak eta Elezkano II.ak Beasainen, ezer jokoan ez dutela.

Jesulitok atzera ere Osasuna Magna aurreratu zuen, baina, tamalez, bina berdindu zuen O Parrulok, eta binako berdinketarekin despeditu zen lehia. "Berdinketa ez dut ontzat ematen, irabazi ahal genuela uste dudalako. Beste behin, aurreratu egin gara eta ez dugu errenta hori aprobetxatzen jakin. Markagailuan gehiago merezi izan dugu" aipatu zuen Imanol Arregi entrenatzaileak.

Lehen Mailako Areto Futbolleko liderra Barça Lassa da (15 puntu), El Pozo Murcia eta Palma Futsal taldeekin puntutara berdinduta. Osasuna Magna 13.a da (5 puntu). Gaur, ostiralean, talde berdeak 9 punturekin sailkapenean 7.a den Industrias Santa Coloma hartuko du Anaitasunan, 20:30ean. Ea puntuak bertan geratzen diren.

Osasuna Magnak Errege Kopan aurrera egin du

ARETO FUTBOLA Burela taldeari 1 eta 3 irabazi zion. Gaur, ligako partidari, Santa Coloma hartuko dute berdeek

Asteartean Areto Futboleko Errege Kopako final hamaseirenak jokatu ziren. Bigarren mailan dabilen Burela talde galiziarra izan zuen aurkari Osasuna Magnak, eta hasieratik erasora atera ziren Imanol Arregiren mutilak. Seigarren minuturako Eric Martelek talde berdearen lehen gola sartu zuen, baina Renatok berdintzea lortu zuen. Osasuna Magnak ez zuen behera egin eta jokaldi ederrak sortzen jarraitu zuen. Roberto Martilen eta Chinoren golei esker atsedenaldirako 1 eta 3 au-

rreratu ziren Imanol Arregiren mutilak eta bigarren zatian partidak bere horretan jarraitu zuen, baina ez zen golik egon. Burelari 1 eta 3 irabazita, Errege Kopan aurrera egin dute berdeek eta final zortzirenetarako sailkatu dira.

Gaur Santa Colomaren kontra

Lehen mailako ligari dagokionez, larunbatean Osasuna Magnak Galizian jokatu zuen, O Parrulo Ferrol taldearen kontra. Chinok Osasuna Magna aurreratu zuen, O Parrulok berdindu zuen,

PILOTA Promesen Lau t'erdia: Bakaikoa, irabaztera behartua

Promesen mailako Lau t'erdian aurreko asteburuan finalerdietako ligaxkako bigarren jardunaldia jokatu zen. Lehen jardunaldian Peña II.ari 9 eta 22 irabaztetik zetorren Joanes Bakaikoa etxarriarra, eta larunbatean, Iruñeko Labriten, Peio Etxeberriaren kontra aritu zen Etxarri Aranazko aurrelaria. Ongi hasi zen Bakaikoa, markagailuan aurretik, baina Etxeberriak buelta eman zion markagailuari. Partida lehiatu eta ikusgarrian, azkenean 19 eta 22 irabazi zion Peio Etxeberriak Joanes Bakaikoari.

Bihar Darioren kontra

Gauzak horrela, Promesen Lau t'erdiko finalerdietako ligaxkan jokatuak bi jardunaldietan Peio Etxeberriak bi garaipen ditu, Dariok bi partidak galdu ditu - finalerako sailkatzeko aukerarik ez du-, eta Bakaikoak eta Peña II.ak garaipen eta porrot bana dituzte. Hirugarren jardunaldiak erabakiko du, beraz.

Gaur, ostiralean, Beasainen, Peña II.aren kontra ariko da Peio Etxeberria, eta bihar, Labriten, Darioren eta Bakaikoaren arteko partida jokatu da. Finalerako egoteko Dariori irabazi beharrean dago Bakaikoa, eta Peio Etxeberriaren eta Peña II.aren arteko emaitza itxaron.

ELOMENDIKO TXAPELKA

4. JARDUNALDIKO EMAITZA
Bidezarra - Zaldia 2-3

SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1 Zaldia 12

PARTIDUA

ASTEBURUAN

Zehaztu gabeko orduan
Zaldia - Izalsa (*Lekunberri*)

Zalduak Elomendiko Txapelketako lidergoari eusten dio

Arakilgo Zaldia taldeak garaipenaren xendan jarraitzen du. Asteburuan Bidezarraren kontra aritu zen Etxarrego taldea eta 2 eta 3 irabazi zion. Horrela, lidergoa sendotu du Zalduak eta 4 puntu ateratzen dizkio Barasoain bigarrenari eta 5 puntu Elomendi hirugarrenari.

Asteburuan Zalduak sailkapenaren behealdean dagoen Izalsa taldea izango du aurkari etxean.

PREFERENTEIA

6. JARDUNALDIKO EMAITZA
Etxarri - Castillo Tiebas 2-2

SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1 Irunberri 13

6 Etxarri Aranatz 9

PARTIDUA

LARUNBATEAN

19:30 Lezkairu - Etxarri (*Lezkairun*)

Castillok azken unean berdindu

Iñigok Etxarri aurreratu zuen berehala eta Javik bigarrena sartu zuen 31 minuturako, eta 3 puntuak etxean geratuko zirela zirudienean, berdintzea lortu zuen Castillo Tiebasek. Azken gola pentaltiz sartu zuten, 92. minutuan.

ERREGIONALA

7. JARDUNALDIKO EMAITZAK
Lagun Artea - Liceo Monjardin 4-0
Altsasu - San Ignacio 5-2

SAILKAPENA

ERREGIONALEKO 1. MULTZOA

1 Lagun Artea 19

3 Altsasu 16

PARTIDUAK

IGANDEAN

12:00 S. Ignacio - Lagun Artea (*NUP*)

18:15 Lagunak - Altsasu (*Barañain*)

Garaipenaren xendan jarraitzen dute Lagun Arteak eta Altsasuk

Lagun Arteak Liceo Monjardin hartu zuen. Bigarren zatian Mendietak Lagunen lehen gola sartu zuen eta atzetik etorri ziren Anderrek (2) eta Mendietak sartutako besteak. Altsasun ere gol festa ederra izan zen. Christianek bi gol sartu zituen, eta ondoren Imanol, Flores eta Imanolen golak iritsi ziren. 5 eta 2 irabazi zuen Altsasuk.

EMAKUM. ERREGIONALA

7. JARDUNALDIKO EMAITZA

Kirol Sport - Altsasu 2-1

SAILKAPENA

EMAK. ERREGIONALEKO 1. MULTZOA

1 Osasuna 21

8 Altsasu 10

PARTIDUAK

IGANDEAN

16:15 Altsasu - Osasuna (*Dantzaleku*)

Altsasuk Osasuna liderra hartuko du igandean Dantzalekuan

Asteburuan Kirol Sportek kontra galdu zuten Altsasuko neskek. Etzi partida garrantzitsua dute: orain arte jokatuak partida guztiak irabazi dituen Osasuna liderra hartuko du Altsasuk.



Alberto Ongay. UTZITAKOA

Alberto Ongayrendako urrezko domina

PILOTA Bartzelonako Pilota Mundialetatik Eskuzko Buruz Buruko urrezko domina ekarri du

Frantziak irabazi ditu 2018ko Bartzelonako Pilota Mundialak. Espainiako selekzioarekin urreetan berdinduta zegoen Frantzia -5 urre zituzten bi selekzioek-, eta, orduan, zilarrezko dominek erabaki zuten. Frantziak 7 zilarrezko zituen eta Espainiak 4, eta horrek selekzio frantziarrari eman zion garaipena. Trinketean dominatu egin zuen Frantziako selekzioak, eta horrek eman zion garaipena hein handi batean. Frantziak 5 urre, 7 zilar eta 4 brontze lortu zituen, Espainiako selekzioak 5 urre, 4 zilar eta 2 brontze eta Mexikok 3 urre, 2 zilar eta 4 brontze. Hori izan zen Bartzelonako Pilota Mundialetako podiuma.

Espainiako selekzioan aritzeko hautatutakoen artean zegoen Mikel Ongay satrustegierra. Eskuzko modalitatean lehiatu zen Ongay, eta primerako lana egin zuen Satrustegikoak. Horri esker, buruz buruko urrezko domina ekarri du Arakilera Alberto Ongayk.

14 herrialde, 160 pilotari

Bartzelonako Mundialetan 14 herrialdetako pilotariak lehiatu ziren eta 160 pilota partida baino gehiago jokatu ziren guztira. Hurrengo Mundiala 2022an jokatuko da, Miarritzen.



Erregional mailako lehen multzoan dabil Lagun Arteak eta egun liderra da. LAGUN ARTEA

Lakuntzako Lagun Arteak preferentera itzuli nahi du

FUTBOLA Aurreko denboraldian maila galdu ondoren, erregional mailan dabil Lakuntzako taldea. Ongi ekin dio denboraldiari, erregionaleko lehen multzoko liderra baita, eta preferentera igotzea da helburua

Aurreko denboraldia gogorra izan zen Lakuntzako Lagun Arteak klubarendako. Oso gutxigatik ezin izan zion mailari eutsi eta preferente mailatik erregional mailara jaitsi zen talde txuria. Ondorioz, aurten erregional mailan jokatzeko ari dira lakuntzarrak, baina momentuz lan bikaina egiten ari dira. 7 jardunaldi jokatu, erregionaleko lehen multzoko lider da Lagun Arteak, 19 punturekin, Lagunak B taldearekin puntutara berdinduta. Altsasu da erregional mailako beste talde sakandarra eta altsasuarrek hirugarrenak dira, 16 punturekin.

Helburua: igotzea

Preferentera igotzea, hori da Lakuntzako taldearen asmo nagusia. "Igoera faserako sailkatu nahiko genuke. Fase horretara erregionaleko lau multzoko lau talde onenak pasatzen dira eta igoera fasean bi multzotan banatzen dira faseak, bakoitzean ligaxka jokatzeko. Multzo ba-

koitzeko lehen hirurak igoko dira preferentera" aipatu digu Lagun Arteako juntako Jesus Mari Goikoetxeak. Igoera ligaxka konplikatua izaten dela gaineratu du Goikoetxeak, multzo bakoitzeko onenak igotzen direlako. "Liga gogorragoa da hori. Baina gu, lehenik eta behin igoera faserako sailkatzen saiatu beharra dugu. Taldea badugu" nabarmendu du.

Erregional mailako Lagun Arteak 24 jokalariko plantilla dauka Jesus Alberto Martin Davila entrenatzailearen esanetara. Salvador Pascual Arriazuren laguntza du entrenatzaileak. 24 jokalar horietatik 11 jokalar berriak dira, eta gainontzekoak aurreko urtekoak. Batzuk, kanpoan egon ondoren, taldera bueltatu dira -Etor Alegria, Xabi Bakaikoa...- eta beste batzuk jubenil mailatik etorri dira. "Taldea gaztea da. Giro bikaina dago euren artean, gustura dabilta entrenamenduetan, partidetan... Ilusioa dute eta ea

orain arte izan dugun hasiera onak segida daukan" gaineratu du Goikoetxeak.

Altsasu taldeko koordinatzaile Alfonso Castellanosen aipatu zuen sailkapeneko lehen lau taldeak, Lagun Arteak, Lagunak, Altsasu eta Ardoi direla lehen multzoko talderik sendoenak eta uste berea dute Lagun Artean. "Erregionalean alde handia dago taldeen artean, mailari dagokionez. Baina igoera faserako igotzen direnak antzeko maila dute, finenak dira, hor datoz zailtasunak" aipatu du Goikoetxeak.

Harrobia

Erregional mailako taldea hornitzeko harrobi polita du Lagun Arteak: jubenilen 2. mailan ari-

LAGUN ARTEAKO JUNTA BERRITU DA; FUNTZIO ALDAKETA EGITEN ARI DIRA BETERANOekin

tzen den jubenilen taldea, kadeteen 2. mailan dabilen kadete taldea, haurren lehen mailan dabilen infantilen taldea, eta kadete mailako bi talde. "Lagun Artearen helburua, kluba garen aldetik, herriko eta inguruko jokalariek trebatzea da, oinarri sendoa duen taldea izateko. Horretarako harrobia lantzea da gure erronka, zalantzarik gabe harrobia etorkizuna delako. Lakuntza bere taldearekin guztiz inplikatu, taldearekin bat zegoen garai haietara itzuli nahi dugu. Herri bat, talde bat" adierazi dute klubetik.

Belaunaldi aldaketa juntan

Lagun Arteak klubeko juntan aldaketa nabarmenak egon dira azken urte honetan, jende berria sartu baita juntara. Jende berria sartzea zen betiko juntaren eskakizuna, urte asko daramatzen jendeak gutxika ardurak uzten hasteko eta hasi berriek ardurak hartzeko, eta aurten aldaketa gauzatzen ari da. Horrela, Jabier Hernandez Santana da presidente berria, Jesus Zubiria presidenteorde berria, Josu Arraiza diruzain berria eta Oskar Maizak bokala izatetik idazkaritzaren kargua hartu du. Bokalak ondokoak dira: Jabier Gasko, Jabier Andueza, Juan Ignacio Mendieta, Diego Cruz, Asier Arregi, Juan Ignazio Maiza, Juantxo Arraiza eta Jose Agirre. "Pentsa, 1976 urtetik eta lehenagotik gaude juntan batzuk; bazen garaia beste batzuek lekukoa hartzeko eta funtzio aldaketa ongi emateko, aurreko juntakoak berriekin egongo gara aurten" azaldu digu kargua utziko duen Goikoetxeak.

Lagun Arteak

Atezainak: Garikoitz Maiza eta Julen Iriarte

Defentsak: Xabier Bakaikoa, Ekaitz Gartzandia, Urko Eizaguirre, Kepa Ollas, Aitor Egurza, Ion Ollas eta Markel Erdozia

Erdilariak: Jurgi Kintana, Xabier Burillo, Mikel Hermoso de Mendoza, Iñaki Berastegi, Etor Alegria, Aritz Iturbide, Iker Zabalo, Momoune Jaamout, Gaizka Sagarzazu eta Iñaki Mendieta

Aurrelariak: Xabier Maiza, Javier Leon, Ander Unanua, Unai Zubiria eta Jonathan Davila

Entrenatzaileak: Jesus Alberto Martin, Salvador Pascual, bigarrena

Sakandarrak txukun Hiru Haundietan

MENDI LASTERKETAK Gorbea, Anboto eta Aizkorri batzeko 14 ordutik gora ibili behar izan ziren gure mendizaleak eta Patxi Rubio eta Aran Larrañaga izan ziren lehen sakandarrak, 258 eta 259 postuetan (17:34:43)

Asteburuan jokatu zen Manuel Iradier elkarteak antolatutako Hiru Haundiak mendi lasterketa, Gorbea, Anboto eta Aizkorri batzen dituen, 101 km-ko proba gogorra. 967 korrikalarik osatu zuten proba eta Javi Domingez izan zen ikuslez gainezka zegoen Araiako helmugara iritsi zen azkarrena, 11 ordu pasatxo korrikan eman eta gero (11:14:08). Emakumeetan Maite Maiora izan zen txapelduna (12:48:37). Sakandarrei dagokienez, Patxi Rubio 258.a iritsi zen helmugara, 259.a sailkatu zen Aran Larrañaga bikotearekin batera (biak 17:34:43). Aipatzekoa da ere Sergio Goñik, Joxeja Maizak eta Joseba Gorritxok proba utzi behar izan zutela, hainbat arazo zirela medio.

Katarain laugarrena Leiren

Larunbatean Juan Migeliz Leire Traila jokatu zen, 21 km-ko eta 1.400 metroko desnibel positiboko proba, Leireko monasterioan hasi eta despeditu zena. 320 korrikalari zeuden izena emanda eta 303k lortu zuten proba despeditzea, Euskal Selektzioako Ander Iñarra (1:54:52) buru zela. Bere taldekide Beñat Katarain lakuntzarra laugarrena sartu zen (2:00:02), 5 minutu pasatxo.



Rubio eta Larrañaga, helmugara iristen, alabak alboan dituztela. P. RUBIO.

Jose Luis Beraza 12.a izan zen, probako lehen beteranoa (2:09:59), eta bere atzetik, 13. postuan, Ander Unzurrunzaga beterano etxarriarra sartu zen (2:11:07). Alejandro Mutiloa 168.a sartu zen (2:56:32) eta Iñigo Aldunate 169.a (2:56:34).

Munarriz Eltxon

Eltxo Traileko proba luzean (21 km) Raul Amatriain (1:30:14) eta Alizia Olazabal (1:49:32) izan ziren txapeldunak. Aritz Munarriz etxarriarra 6.a iritsi zen helmugara (1:38:52).

Sakandarrak

Sakandarrak Hiru Handietan (101 km)

1. Javi Domingez	11:14:08
258. Patxi Rubio (Uhar)	17:34:43
259. A. Larrañaga (Uhar)	17:34:43
260. Aitor Salinas (Etx)	17:35:18
363. Javi Zeberio (Bak)	18:47:25
381. P. Rodriguez (Alts)	18:56:13
418. I. L. Sabando (Etx)	19:15:17
459. M. Berastegi (Arb)	19:41:20
460. Amairu Ginea (Arb)	19:41:21
559. X. Mauleon (Etx)	20:47:20



Gaurko boxeo jaialdiko karteletik hartutako irudia. UTZITAKOIA

Boxeo eta K-1 gaua gaur Altsasuko Burunda pilotalekuan

BOXEOA Nafarroako eta Kataluniako borrokalarien arteko jardunaldian, tartean Xuban altsasuarra ariko da

Nafarroako Kickboxing eta Boxeo Federazioak antolatuta, Altsasuko Burunda pilotalekuak ring itxura hartuko du gaur, boxeo eta K-1 gaua izango baita gaurkoa. 20:00etan hasiko da jaialdia eta Nafarroako eta Kataluniako borrokalarien arteko boxeo eta K-1 norgehiagokaz gozatzeko aukera izango dute Burundara hurbilduko diren zaleek.

Sarrerak aurretik daude salgai (harmaila 12 euro, aulkia 15 euro) eta egunean bertan ere txarteldegia zabalduko dute.

Boxeo kirol ezagunagoa da. Aldiz, K-1 borroka kirola edo kirol diziplina da. 1993 urtean Kazuyoshi Ishiik sortu zuen, Tokion. K-1 kirolak kickboxinga eta beste kirol eta arte martzialetatik datozen teknikak –Muay Thai, karate, taekwondo, kickboxing, savate, boxeo eta beste– uztartzen ditu.

Xuban

Gaur Altsasun ariko diren borrokalarien artean altsasuar bat dago, Xuban. Berak eta Johan Zanoziainek egingo duten erakustaldiaz gain, borrokalari nafar eta katalanen arteko borrokalariak izango dira Altsasun: Joseba Diazek Marc Fernandez izango du aurkari, Dani Mateosek Edgar Teixeira, Oixin Kennedyk Unai Leiva, Jorge Pueyok Ferran Alcina, Izan Ibirikuk Aitor Lopez eta Mousinek Victor Lecea.

Igandean taekwondo erakustaldia

Bargagain Taekwondo klubak taekwondo erakustaldia egingen du Altsasuko ferietan, igandean, 18:30ean. Eguraldiak uzten badu Iortia kultur guneko zabalgunean izanen da ekitaldia, baina eguraldi txarra izanez gero, Burunda pilotalekuan.

Biharko korrikalariak

ATLETISMOA Dantzaleku Sakana Atletismo klubeko 2018/2019 denboraldia martxan dago dagoeneko eta atletismoan trebatzen hasiak dira Sakanako neska-mutikoak. Dantzalekuko atletismo pistan eta inguruetako bidexka eta paraje ederretan egiten dituzte trebakuntza saioak, giro onean, eta klubean kontentu daude harrobiarekin.



DANTZALEKU SAKANA

TRITATLOIA Sergio Garcia de Eulate Ibizako Triatloian

Bihar Europako Txapelketarako eta Espainiako Triatloi Koparako baliagarria den distantzia erdiko triatloi proba jokatu da Ibizan, eta bertan arituko da Sergio Garcia de Eulate (9 km igerian, 90 km bizikletan eta 21 km korrikan). Espainiako Kopako bere adin tartean aurreko postuetan dago eta lan ahalik eta txukunena egin nahi du.



Sergio Garcia de Eulate. ARTXIBOA

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN
BERRI ASTEAZKENEN EGUERDIA
BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 /
gutunak@guaixe.eus



ALTSASU Altsasuko VII. Arte Azoka. Urriaren 19tik azaroaren 6ra arte.
Astelehenetatik ostiraletara
18:30etik 21:00etara, larunbatean
18:30etik aurrera eta igandetan
16:00etatik 20:30era.

OSTIRALA 26

ALTSASU Tik-tok lehiaketa.
18:00etan, Intxostiapuntan.

UHARTE ARAKIL Sareak ehutzen liburuaren aurkezpena.
80 urte memoria galtzen.
19:00etan, udaletxean.

ALTSASU Euskaraldia prestatzeko batzar irekia.
19:00etan, Gure Etxea eraikinean.

ARBIZU Zerua berun. Hitza, musika eta irudia. Asier Serranor eta Castillo Suarez.
19:00etan, udaletxean.

ETXARRI ARANATZ Beilatokia toki egokian.
19:00etan, Kale Nagusiko 7.an.

SAKANA Hileko azken ostirala. Euskal presoak Euskal Herrira. Irurtzun, Uharthe Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku eta Olazti.
20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske.
20:00etan, udaletxe parean.

IRURTZUN Antzerki Zikloa: Ez dok Hiru 'Akustikoa'.
21:00etan, kultur etxean.

IRURTZUN Irurtzungo eta Arakilgo Gazte Eguna: afaria eta kontzertu akustikoa.
21:30ean, Barazki gunen.

ALTSASU Oreina filma.
22:00etan, lortia kultur gunean.

LARUNBATA 27

ALTSASU Bertso poteoa: Eneko Lazkoz eta Julio Soto.
13:00etan, Foru plazatik.

ALTSASU Tik-tok lehiaketa.
18:00etan, Intxostiapuntan.

SATRUSTEGI Historiaz beteriko XI. Mendi Martxa. Jokin Lanz.
09:00etatik aurrera, plazatik.

IGANDEA 28

ALTSASU Beunde gaina 39 km-ko ibilbidea eginen dute Barrantako mendi atalekoek.
08:30ean, Zumalakarregi plazatik.

ALTSASU Altsasu-Dorleta Ama Birjina-Altsasu 100 km-ko ibilbidea Barranta errepidea.
09:00etan, San Juan plazatik.

UHARTE ARAKIL 1936an erahila izan zen Victor Martirena uhartearren omenezko plaka jartzea. 80 urte memoria galtzen.
13:00etan, hilerrian.

UHARTE ARAKIL Aralarko santutegiko indusketei buruzko hitzaldia. Hizlaria: Fran Valle.
17:00etan, Zamartzen.

ALTSASU Proiekzioa eta palomitak.
18:00etan, Intxostiapuntan.

ALTSASU Beietz taldea kontzertua.
19:00etan, Foru plazan.

ALTSASU Oreina filma.
19:30etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa.
20:00etan, Foru plazan.

ASTELEHENA 29

SAKANA AHTren lanak gelditu

ZORION AGURRAK



Enaitz eta Arturo
Semeari eta aita txori ZORIONAK!! Ongi pasa egunek



orain! manifestaziorako autobusa.
10:30etik aterako da, herrietatik.

ALTSASU Pentsio duinen alde. Nafarroako Pentsionistak Martxan eta Otsailaren 22ko Plataforma.
19:30ean, Udaletxe aurrean.

ASTEARTEA 30

ALTSASU Menpekotasun legearen inguruko hitzaldia. Hizlaria: Edurne Garde Mateo.
18:00etan, kultur gunean.

ASTEAZKENA 31

IRURTZUN Gau beltza. Misteriozko ipuinkontalariak euskaraz. Izaskun Mujika.
18:30ean, liburutegian.

UHARTE ARAKIL Uharthe Arakilgo falduna izateko izen ematea.
19:00etan, udaletxean.

IRURTZUN Nazioarteko XXIV. Ziklo Korala: Tokyoko Kahari abesbatza.
19:30ean, San Martin elizan.

OSTEGUNA 1

ARBIZU Sakanako Gazte Asanbladaren arteko jardunaldiak. Hitzaldia: gazteria langile klasean.
11:00etan, Argi-Bidean.

ALTSASU Ha nacido una estrella.
19:30ean, lortia kultur gunean.

BAKAIKU Zer-nolako Bakaiku nahi dugu etorkizunean? Jubilatueendako saioa.
16:00etan, auzo gelan.

ETXARRI ARANATZ Gudariak direlako, amnistia osoa. AEM.
19:30ean, plazan.

ALTSASU Sindicato vertical-en kontzertua eta DJ Ese Villano.
22:30ean, Dantzalekun.

ESKERTZA

Iosu Garmendia Garcia

Eskerrak eman nahi dizkizuegu momentu gogor hauetan gurekin egon zareten guztioi. Iosu eta Jasoneren familiari eta lagunei, gure familien lagunei, Etxarriko Abesbatzari eta Koruari, Lakuntzako Koruari, Magotteaux enpresari eta bere langileei, gure alboan egon zareten Etxarri, Lakuntza, Larraga eta gainontzeko herrietako biztanleei eta baita Nafarroako Ospitaleko Larrialdi Zerbitzuetako langile eta Iratxe beilatokiari ere.

ESKERRAK BIHOTZEZ

Iosu eta Jasoneren familia

ESKELA

Iosu Garmendia Garcia



Datorren azaroaren 1ean, bere animaren aldeko meza ospatuko da Lakuntzako San Salvador elizan, 11etan.



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazen ibitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarra.com · www.dekovenavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · ALTSASU · Tel./Fax: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860



ESKERTZA

Mikel Apaolaza Mendia

“Mikelen amak, aitak eta arrebak eskerrak eman nahi dizkizuegu guztioi, ordu latz hauetan gure ondoan egoteagatik. Bihotz bihotzez eskertzen dizuegu emandako besarkada eta muxu bakoitza. Ez dugu Mikel inoiz ahaztuko, ezta zuek emandako maitasuna ere ez.”

Araceli, Jone eta Jonan



ESKELA



Mikel Apaolaza Mendia

(Iñigo Aritza Ikastolako ikasle ohia)

Ikastolako hariztiko hostoak orbel...
Besarkada handia familiarendako

Iñigo Aritza ikastolako guraso, irakasle,
ikasle eta langileak



ESKELA

Mikel Apaolaza Mendia

Joan zara gure ondotik baina ez gure bihotzetatik.
Ez zaitugu inoiz ahaztuko.

Gurasoen Urdiaingo kuadrila



ESKELA

Mikel Apaolaza Mendia

Zue irribarria ta alaitasuna
beti goguen izanko tu,
Agur lagun!

92, 93, 94 eta 95ko kintuek



ESKELA

Mikel Apaolaza Mendia

—Goian bego—

Zure irribarria eta alaitasuna
beti gogoan

AS
Alain Senar
akademia • academia
Alain Senar Akademia

OROIGARRIA

Goizeder Azazeta Pelaez

Tronboiaren soinua datorkit burura. Mendian, haritz eta pagoen artean maitasunez beteriko soinu goxo hura. Dantzariak udazken hostoak zapaltzen entzuten ditut erritmoa jarraituz. Zure borrokaren azken oihua somatzen dut. Bihotza uzurtu egiten zait. Urtaroak pasa dira, negua, udaberria, uda eta berriz ere iritsi da udazkena. Orbela pilatu da lurrean, haizeak gogorki astindu baititu zuhaitzak. Eta berriz ere tronboi leun horren soinua eta dantzarien erritmo bizia. Inoiz baino biziago, eta inoiz baino indar handiagoarekin. Bihotza uzurtu zait berriro ere, eta horrek poztu egiten nau. Zure borrokaren azken oihuaren indarra somatzen dut. Beti lau izan gara, baina betiko izango gara bat.

Maite zaitugu
Aita, ama eta Olatz



JAIOTZAK

- Eider Arbizu Aizpurua, urriaren 15ean Iturmendin
- Oihan Montes Alberca, urriaren 18an Lakuntzan

EZKONTZAK

- Cristina Mata Ramirez eta Javier Moreno Montecelo, urriaren 19an Ihabarren

HERIOTZAK

- Ursula Unanua Lizarraga dorrobarra, urriaren 16an Lizarragan
- Mikel Apaolaza Mendia, urriaren 21ean Urdiainen

ESKELA

Mikel Apaolaza Mendia

Urdiainen 2018ko urriaren 21ean hil zen, 19 urte zituela



Paellako lagunak
Urdiain

ESKELA

Mikel Apaolaza Mendia

"Zurekin bizitako momenturik
ederrenak egunero ditut nire lagun
txoko izkutuenetan"

Gue artien yonko haiz beti

Zure lagunak



ESKELA

Mikel Apaolaza Mendia



Ahazten ez dena ez da inoiz hilko, gurekin zaitugu lagun. Segi beti bezain alai!
Maite zaitugu

Ikastolako lagunak

ESKELA



Mikel Apaolaza Mendia

Urdiainen 2018ko urriaren 21ean hil zen, 19 urte zituela

Extrusako zure lankideek
ez zaitugu ahaztuko

Lankideak
Altsasu

ESKELA



Mikel Apaolaza Mendia

Samindurik dugu bihotza, motel bizitzaren garra
Besarkada handia familiarendako

Viscofan-eko Arazeliren lankideak
Urdiain



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk
zeinetan norbait
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU

Santa Cruz, 6

ETXARRI-ARANATZ

Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

tanatorioak
IRACHE

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70

🐦 @Grupolrache

📘 Grupolrache

🖱 www.tanatoriosirache.es



Ez dok hiru musikaren eszena bat. GUILLERMO CASAS

"Euskal musika tristea bada, guk umorea egin dugu horrekin"

PATXO TELLERIA AKTOREA

'Ez dok hiru Akustikoa' musikaren egilea da Telleria

Erkuden Ruiz Barroso IRURTZUN

Ez dok hiru 'Akustikoa' ikuskitzuna Irurtzango Antzerki Zikloa itxiko du gaur, urriaren 26an, ostirala, 22:00etan. Euskal musikaren historiaren begirada umoretsua da *Ez dok hiru*.

Nola sortu zen *Ez dok hiru*?

Konpainian umore berezia egiten dugu eta musika eta umorea uztartzea erabaki genuen. Horretarako hiru musikariek elkartu ginen eta *Ez dok hiru* sortu zen.

Zergatik da berezia zuen umorea?

Ironia asko erabiltzen dugu. Testuan oinarritutako umorea

da. Azalean ez dagoen umorea da.

Euskal musika ez omen da oso umoretsua, bada?

Hori da, hain zuzen, emanaldia eszenetako bat. Euskal musika tristea dela esaten da, eta umorea egiteko aukera ematen digu horrek.

***Ez dok hiru*-rekin bira egin duzue, eta orain akustikoan ari zarete?**

Agertoki handien zirkuitu ia osorik egin dugu. Konturatu ginen antzeztoxi txikitara iristeko moldatu behar genuela.

Ikus-entzuleek disfrutatuko dute? Dudarik gabe.

Kubako doinuak txistuaren soinuarekin bat Etxarrin

Ache Pa Ti taldearen emanaldia izanen da bihar urriaren 27an, 20:00etan, Etxarri Aranazko kultur etxean.

ETXARRI ARANATZ

Etxarri Aranazko musika eskolak antolatu du Ache Pa Ti Kubako musika oinarri duen taldearen kontzertua. Musika kubatarra jotzen dute, baina txistuarekin fusioa egiten dute. Hortaz, hasiera batean oso "moldakorra" ez den instrumentu baten erabilera anitzak dituela erakutsi nahi dute, Alex Martinez eskolako zuzendariak azaldu bezala.

Txistua da ikasle gutxi dituen instrumentuetako bat eta kontzertu honen helburua "txistua,

beste hainbat instrumentu bezala, aldarrikatzea da". Ache Pa Ti taldeak txistua Kubako doinuekin fusionatzen du.

Txistuak, beste hainbat instrumentuk bezala, "bide gehiago" dituela erakusteko antolatu du musika eskolak emanaldi hau. Ache Pa Ti txistua Kubako doinuekin uztartu du, izan ere, Martinezen hitzetan, fusioa horretan datza. "Txistua oso ongi uztartuta dago, oso talde ona eta gomendagarria da". Musika fusioaren adibide bat baino ez dela dio Martinezek.

Arbizuko 'zeltik parrandak' feriak girotuko dute

Arbizuko Beietz! taldearen kontzertua izanen da Altsasuko Foru plazan igandean, urriaren 28an, 19:00etan. Zeltik parranda deitu diote sortu duten estilo berriari. Folk musika hainbat musika estilorekin nahastuta sortu du estilo propioa Beietz! taldeak. Gainera, hiru emakume dira oholtzaren gainean aritzen direnak.

Nafarroako Nazioarteko Abesbatzen zikloa Etxarrin eta Irurtzunen

Nafarroako Nazioarteko Abesbatzen zikloa izanen da urriaren 28tik azaroaren 4ra. Zikloa bitan egorriko da Sakanara. Irurtzunen Tokioko Kinokai Yourh Choir Kanami taldea ariko da urriaren 31n, asteazkena, 19:30ean, San Martin elizan. Etxarri Aratzen Daarler Vocal Con alemaniarrek egonen dira azaroaren 1ean, ostegunean, elizan.



BAZTERRETIK

IUNE TRECET OBESO

"Big data" eta traktoreak

Atzo lagun batek ikaratua kontatu zidan duela pare bat egun traktore bati argazki bat atera ziola eta orduetik mugikorrean agertzen zaizkion publizitate guztiak nekazaritzarekin zer ikusia dutela. Leku guztietan lurra lantzeko makinak eta tresneria agertzen zaizkio hain hiritarra den lagunari. Baina nola liteke, Iune, inoiz ez badut argazkia inon zabaldu hau gertatzea?

Erantzuna erraza da: kontrolatzen gaituzte. Google-en Androidek eta Apple-en mugikorrak "big data" delakoa jasotzeko gailu perfektua bihurtu dira; etengabe jasotzen dituzte gure datuak, non gauden, zer egiten dugun, zeinekin gauden edo zer edo nor gustatzen zaigun. Datu hauek guk kontzienteki edo inkontzienteki zabalduak dira.

Altsasuko Ferietako momenturik politenari klik egiteko aukera

Altsasuko ferietan argazki rallya antolatua du Altsasuko Mendigoizaleak taldeak. 33. edizioa izanen da

ALTSASU

Altsasuko Mendigoizaleak Argazki Rallyaren 33. edizioa antolatu du igande goizerako Altsasuko Ferien baitan. Altsasuko Ferietako unerik politena argazki kamerarekin jasotzea ez ezik, lau gai gehiago jaso behar dituzte irudien bidez

Beste urte batez Altsasuko Feriak argazkilarien gozagarri izanen dira. 33. urtez antolatu du Altsasuko Mendigoizaleak Altsasuko ferietako argazki rallya. Helburua ferietako unerik politena irudian jasotzea da. Gainera, beste hainbat gairen irudiak jaso behar dituzte argazkilariak ere. Gaiak egunean bertan zehaztuko dira, rallya hasi aurretik. Izena ematea egunean bertan izanen da, 08:30tik 10:30era.

Parte-hartzaileek gai bakoitzeko argazki bana atera behar-



2016ko erakusketaren argazki batzuk.

ko dute, baita haiek agertzen diren beste bat ere. Argazki bakoitza bere izenburuarekin aurkeztu behar da. Argazkiak originalak izan behar dira, hau da, ezin dira ordenagailu bidez moldatu. Erakusketa eginen dute azaroaren 18tik 25era.



Estatu Batuetako hauteskundeetan eragin dutela irakurtzen dugunean #deleteFacebook (#facebookBorratu) bezalako kanpainak sortzen dira. Hori da gure informazioa jasotzearen ondorio larriena, gero informazio hori gu manipulatzeko erabili dezaketela, eta oso erraz gainera. Gutaz zenbat eta gehiago jakin, orduan eta errazago manipulatuko gaituzte.

Dakigunez, milaka pertsona manipulatu zituzten Trumpen aldeko bozka emateko, eta zuk, zer traktore erosi nahi duzu?

Sare sozialetan, adibidez, gure bizitzako momentu ederrenak lau haizeetara zabaltzen ditugu, nahiz eta gero gure etxeko gortinak itxi. Baina badira inkontzienteki ematen ditugun datuak ere, traktore bat gustatu zaigula edo okerragoa dena, etengabe non gauden, nahiz eta GPSa desgaitua mantendu.

"Big data" hauen poltsari geroz eta ekarpen gehiago egiten dizkiogu, mugikorraren bitartez geroz eta gauza gehiago egiten ditugulako. Orain bankuek ere mugikorraren bidez erosketak ordaintzeko aukera ematen digute eta horrela gutaz daukaten perfla handitu dezakete.

Gehiengoak berdin zaiola erantzuten du guzti hau kontatzen diozunean. Baina gero, Facebooken bitartez



Arte Azoka mustu zuten urriaren 19an. UTZITAKOIA

Arte Azoka erakusketa azoka bihurtuko da igandean

Arte Azoka urriaren 19an mustu zuten eta Altsasuko ferietan, urriaren 28an, artistek salmahaiak jarriko dituzte

ALTSASU

Sakanako artisten erakusleio bezala sortu zen Arte Azoka duela zazpi urte. Hortaz, erakusketa ez ezik, artisten lanak erosteko aukera dago ere. Gainera, igandean, urriaren 28an, Altsasuko feriekin batera, kalea aterako dira eta benetako arte azoka eginen dute. Goizean zehar izanen da, Iortia kultur gunearen erakusketa gelaren ondoan. Artebide elkarteak antolatatu du Arte Azoka.

Ibarreko artistendako erakusketa garrantzitsua da Arte Azoka, Argiñe Berastegi artista arbizuarrak azaldu bezala: "urte batean izan ezik, beste guztietan artelanen bat saldu dut". Erakusketa azaroaren 6ra arte egonen da Iortiako kultur guneko erakusketa gelan. Erakusten den obraren bat eskuratu nahi izanez gero, erakusketa bukatu arte itxoin beharko dute. "Gai-

nera, harremanak egiteko aukera ematen du erakusketak ere. Agian zure artelanaren bat gustatzen zaie eta beste bat egiteko eskatzen dizue".

Arte diziplina guztiak ikus daitezke Arte Azoka erakusketan: "denetarik dago, lan abstratuak, figuratiboak, argazkiak, eskultura, instalazioak". Helena Santano Artebide elkarteak kideak, esaterako, hizkuntza gutxietan inspiratutako eta oinarritutako instalazioa dauka erakusketan: "katalanieraz, asturianoaz, galiziarrez eta euskaraz dago instalazioa".

Artista bakoitzak erabakitzen du zer erakutsi nahi duen, hortaz, artelan handi bat, hainbat txiki edo serie bat izan daiteke. "Nik aurten erakutsi gabe neukan lanak birziklatu ditut, baina badakit jendeak Azokarako propio sortutako lanak egiten dituztela".

'Manez eta kobreak' kontzerturako sarrerak salgai

Berriak, Mank-ek eta Altsasuko udalak elkarlanean kontzertua antolatu dute arazoaren 17rako.

ALTSASU

Azaroaren 17an izanen da Berria egunkariaren aldeko kontzertua Iortia kultur gunean, 19:00etan. Dagoeneko sarrerak salgai daude. Sarrerak aurretik erosita Berrialagunendako 8 euroko prezioa dute, eta bazkide ez direnendako 10 eurokoa. Egunean berta, aldiz, 10 eta 12 euroko prezioa izanen dute sarrerak. Iparraldetik datorren folk musika izanen da, hain zuzen, kultur gunearen egoitzan: Manez eta kobreak.

Thierry Byscary Kalakan taldeko kide ohiaren proiektu berria da Manez eta Kobreak. Hainbat taldetan aritu ondoren, Manez bezala ezaguna den Byscary bere abestiak aurkeztea erabaki zuen. Kobreak, aldiz, Manezekin jotzen duten metaluzko instrumentuak dirala.

Taldearen musika tradizioan oinarritzen da, baina doinu "freskoak eta txistagarriak diren" kantak dira. Haizezko instrumentuak eta ahotsak uztartzen ditu bere ahaide, auzokide, adiskide edo ezagunen bizitzak kontatzeko.

Sarrerak Iortia kultur gunean, www.iortia.com/eu edo berria.eus/berrialaguna/ denda webguneetan eskura daitezke.



Castillo Suarez eta Maite Mutuaberría Zerua Berun albumaren aurkezpenean. ARTXIBOIA

Hitzak, irudiak eta musika 'Zerua Berun' emanaldian

Castillo Suarez idazleak eta Asier Serrano musikariak Zerua Berun emanaldia eginen dute gaur, 19:00etan, Arbizon

ARBIZU

Zerua Berun albumak testu laburrak ditu eta irudiak kolore gutxikoak dira, apalak. Baina asko esaten dutenak. Bakardadea da nagusi eta deskripzio asko agertzen dira. Maitemina, desamodioa, komunikazio eza, deseria eta abar dira albumaren gai nagusiak. Albumaren sena ikusi ahal da Arbizon eginen duten emanaldian, musika lagun dutela. "Kantu batzuk osorik entzungo ditugu, beste batzuk hasiera baino ez. Baina sorpresa bat izanen da guztiendako". Ruper Ordorika abeslariaren Martin Larralde abestiarekin hasiko da emanaldia.

Zerua Berun helduendako albuma da. Castillo Suarez idazleak eta Maite Mutuaberría ilustratzaileak egin zuten. 2014. urtean Peru Abarka sariaren irabazlea izan ezen eta urte berean Ibaizabal argitaletxeak argitaratu

zuen. Poetaren barne-mina eta nahigabeak kontatzen ditu eta irudiak ere pertsonaia isolatuak, paisaiak eta atmosfera isolatuak erakusten ditu.

"Albumetan testuak gauza bat esaten du eta irudiak beste bat. Bi bide paralelo dira. Osagarriak dira, baina ezberdinak". Castillo Suarez idazleak *Zerua Berun* emanaldian hitzak adieraziko ditu. Asier Serrano musikariak hitzak musikarekin lagunduko ditu. Eta, bitartean, irudiak ere ikusiko dira. Suarezek azaldu duenez albumak hitz gutxikoak izaten dira, hitzak eta irudiak uztartzen direlako, hainbat interpretazio sortuz: "albumak interpretatu behar dira. Horregatik haurrek laguntzarekin irakurri behar dute".

Arbizuko "enkargu" bat izan zen *Zerua Berun* emanaldia, baina Baztanen ere eginen dute, "guztiz ezberdina" izanen dena.

Eneko Lazkoz etxarriarra Pello Errota Sarian txapeldun

Bertso poteoa izanen da bihar, urriaren 27an, Altsasuko ferien harira. Eneko Lazkoz eta Julio Soto ariko dira

ETXARRI ARANATZ - ALTSASU

Pello Errota bertso txapelketa ospatu zen urriaren 20an, larunbatean, Asteasun. Bertsolariaren jaiotzaren mendeurrenaren harira antolatu zuten saioa, eta Eneko Lazkoz irabazi zituen

bi sariak: txapela eta bertso onenaren saria.

Asteasuko udalak Pello Errota bertsolariaren urteurrena ospatzeko hainbat ekimen antolatu ditu, haien artean Harritzu Bertsozale Taldearekin an-

tolatutako bertso txapelketa. Unai Gaztelumendi, Asier Azpiroz, Beñat Lizaso eta Eneko Lazkoz bertsolariak aritu ziren. Beñat Lizaso eta Eneko Lazkoz iritsi ziren finalera eta etxarriarrak irabazi zuen.

Bihar Altsasun

Euskal Herrian Euskaraz taldeak bertso poteoa antolatu du bihar, 13:00etan, Foru plazatik. Eneko Lazkoz, Nafarroako txapeldun orde, eta Julio Soto, Nafarroako txapelduna, arituko dira.



Asteasuko ordezkariak, Pello Errotaren senideak eta bertsolariak. ASTEASUKO UDALA

"Batzordeetan auzolana-elkarlana nagusitu da"

Jone Areta Urrestarazu Nafarroa Oinezko koordinatzaile ardua joan den urteko irailean hartu zuen eta azaroaren 21ean utziko du. Nafarroa Oinez egunaren ondoren egin beharrekoak zein diren eta haren balorazioa jaso nahi izan dugu

Alfredo Alvaro Igoa BURUNDA

1 Eguraldia libratu zenuten. Baina Nafarroa Oinez eguna hasteko a zer modua!

Egia esateko, oso egun gogorra izan zen, hasiera bereziki. Oso berri txarra. Mikelen heriotzaren berriarekin hasi behar izan genuen eguna. Oso gogorra izan zen guretako. Baina komunitate osoak erabaki zuen aurrera egitea, ez zegoela besterik. Egoerari aurre egin behar geniola. Eta eguna modu ahalik eta egokienean aurrera ateratzen saiatu behar ginela. Eta egia da, toki desberdinetatik esan digutenaren arabera, nahiz eta guretako oso egun xamurra ez izan, jendea gustura egon zen. Gauza guztiak ondo bideratu ziren eta egun ederra lortu genuen.

2 Non egon zinen Oinez egunean?

Nik, egia esan, ezer gutxi ikusi nuen igandean. Ikastolan koordinazio gunea izaten dugu. Hainbat batzordetako ardura-dunak, koordinatzaileak, segurtasun teknikaria, segurtasun batzordeko arduraduna, ibilbideko arduraduna, osasungintzako arduraduna bertan egoten gara. Egunaren kontrolaz ardu-



Jone Areta Urrestarazu, Nafarroa Oinezko koordinatzailea. UTZITAKOA

ratzen gara. Zerbait behar bada, konponbidea ematen.

3 Zenbat boluntariok egin zuten posible ospakizuna?

Egunean bertan, gutxi gorabehera, 1.200 lagun. Erraz esaten da.

4 1.200 horiek koordinatzeak urte guztiko lana eskatzen du, ezta?

Aurten 14 batzorde izan ditugu. Eta horietan 150 pertsonatik gora urte batez lanean egon dira. Pertsonal batzordearen lana azpimarratzekoa izan da aurten. Oso lan fina egin dute eta txanda guztiak betetzeko aukera izan dugu.

5 Inklusibitatea eguneko ardatzetako bat. Zein harrera izan du?

Oso ona. Bidea ireki dugu. Ahalgin handia egin dugu bide hori ireki eta atzetik etorriko diren ikastolek bide hori hartu eta zabal dezaten.

6 Batzordeek euren balorazioak egiten dituzte? Eta zer diote?

Batzorde bakoitza egunaren bere balorazioa egiten hasi da. Heldu den astean batzorde iraunkorraren bilera izanen dugu. Han batzordez batzorde aztertuz balorazio orokorra egingen dugu. Gero batzorde bakoitzaren lana izanen da urte guztian egindako lana memoria batean jasotzea... Hurrengo ikastolak jakin dezan oinarria zein izan den eta beraiek irizpide bat izan dezaten.

7 Guztia jaso, noizko?

Aste honetan. Muntatze lanak ilusio gehiago dakar. Hala ere, astelehenean lagun mordo bat elkartu ginen lanerako. Oraindik ere, egunero-egunero, badago jendea lanean jarraitzen duena.

8 Lortutako diruak ikastolako eraikinean zein moldaketa egingen duzuen badakizue dagoeneko?

Ez. Oraindik ez dugu ekonomia-baloraziorik. Baina lehentasun batzuk badauzkagu. Azpiegiturari buruzko beharrak bete behar dira, bai ala bai. Itajurak dauzkagu eta teiltatua konpondu beharko da. Behin horiek guztiak ase ditugula, bigarren pausoa etorriko litzateke: pedagogia-eraldaketak eskatzen digun espazio-eraldaketari eustea.

9 Festari beste begirada batekin begiratu diozu gero?

Ez dakit. Koordinatzaile lanetan aritzen naizen aurreneko aldia da, baina Oinez festa barrutik bizitzeko aukera izan dut beste edizio batzuetan, bai boluntario, bai batzordeetan lanean.

10 Zure balorazio pertsonala?

Oso zapore onarekin bukatu dut. Lantaldetan izugarriko lana egin da. Lehenengo egunetik ardua bete dute. Orokorrean oso giro ona egon da. Zerbait azpimarratu beharko banu... batzorde guztietan auzolana-elkarlana nagusitu dela.

11 Klasera bueltatzeko gogoz?

Bai. Beti gustuko izan dut. Bokazioz naiz Haur Hezkuntzako irakaslea. Nire gelakoen gurasoak direnekin ere tokatu izan zait Oinez berdinetik berdinera aritzea. Auzolana dela eta, aukera hori ikastoletan askotan ematen da. Bada beste aberastasun bat familiekin halako tratua izatea. Ez bakarrik irakasle eta guraso tratua, baizik eta berdinetik berdinera, lan bat burutzeko eta helburu berdinean biak lanean aritzeko.

Osoa: www.guaxe.eus

Batzkide sarituak

Azaroako sariak

- Antonio Arbilla (Uharste Arakil)
- Maria Higuero (Etxarri Aranatz)
- Sandra Jaka (Altsasu)
- Maria Elso (Altsasu)

1. SARIA:
 EKAINBERRI KOBAZULOAK: 2 SARRERA
 ARTAZAKO KANPINA: %10EKO DESKONTUA
 LACTURALE: ESNEKI LOTEA
 GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN

2., 3. ETA 4. SARIA:
 ARTAZAKO KANPINA: %10EKO DESKONTUA
 LACTURALE: ESNEKI LOTEA
 GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN





